



ARGIA

LURRA
HERRIARI
DEIKA

Agroekologia mugimendua
elikaduratik burujabetzak lantzen

22-28. orriak

#2.703 | 2020/10/11 | 3,90 €



**"Makurtzen ari gara
euskaraz ez dakitenen
egokitsera"**

12 | ALLANDE SOKARROS



**Eusebio Arizmendi
gudari ohiaren
historia ahaztua**

34 | HISTORIA



**Euskal idazleak
Espainiako
merkatuan**

42 | KULTURA



Bizitzarako agenda berezia dugu honakoa, norberaren egunerokoa ilargiarekin eta lurrarekin uztartzeko erraminta baita. Landareekin egiten ditugun lanak jaso eta ikastez gain, agendan idatziko ditugu bakoitzak, gure bizitzako hitzorduak, egin beharreko lanak, gogoan hartu beharrekoak eta gainerakoak. Eta aldi berean, agendan irakurri ahalko dugu ilargiaren arabera aste bakoitzean lurra nola landu: zer erein, zer landatu, nola inausi, nola tratatu, zer uzta jaso, nola txertatu...

BARATZEA
BASOA
LORE BARATZEA
FRUITU BARATZEA



Ilargia eta landareak 2021

AGENDA

14€

Jakoba Errekondo
Antton Olariaga

EROSTEKO
argia.eus/azoka
943 37 15 45



ARGIA

BIZI BARATZEA

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN
UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO IRUDIA:
MAITANE GARTZIANDIA

Iritziak

- 17 | DAVID BOU
- 18 | MAIALEN BERSATEGI
- 19 | ARKAITZ ZARRAGA
- 19 | UXUE APAOLAZA
- 20 | IÑAKI MURUA

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 38 | DENBORAREN MAKINA
- 39 | ARGIA KOMUNITATEA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 54 | BERANDUEGI



34 | EUSEBIO ARIZMENDI GUDARI OHIA

Oilo lapur bat hil zuen guardia zibilak 1952an Markina-Xemeinek. Urko Apaolazak erreportaje honetan bere historia kontatu du: Amuategi batailoian aritu zela, nola bukatu zuen kartzelan eta gizartean sarerik ez zuela. Justiziarik ezagutu ez zuenak, ez dezan ahanzturaren injustizia ere jasan.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

Itsas-garraio araugabearen emaitzak dira *rhosus* zein *wakashio*-k eragin istripuak
Jenofa Berhokoirigoin

12 | ALLANDE SOKARROS

“Euskal Herri bat izan behar bada, euskalduna behar du izan”
Miel A. Elustondo

22 | AGROEKOLOGIA

Lurra herriari deika.
Estitxu Eizagirre Kerejeta

29 | KATALUNIako ERREFERENDUMAK HIRU URTE

Beste urri batzuk etorriko dira
Alex Romaguera

32 | HIZKUNTZA

“Ardura duten erakunde askok hizkuntza folkloretzat dute”
Txerra Rodriguez

42 | EUSKAL IDAZLEAK ESPAINIAKO MERKATUAN

Kuotatik harago, ateak zabaltzen ari dira?
Kepa Matxain

46 | KULTURA | PANTX RECORDS Jamaika txiki bat Bilboren bihotzean

Amaia Lekunberri Ansola

52 | ARGI-KONTA | ÀLEX FRANCÉS “Lege hau ez da gure borrokaren amaiera”

Saioa Baleztena

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Eizagirre, Mikel García, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartziandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olasolo, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametzta Interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaina taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

A close-up photograph of a person's hand gripping a thick, weathered wooden staff. The person is wearing a red shirt and a black jacket. In the background, a Kanak flag with horizontal stripes of blue, red, green, and yellow is visible, along with a thatched roof and blue tents, suggesting an outdoor gathering or protest.

Hirugarrenean, aidanez

"Kolonizazioa gizateriaren kontrako krimena da". Emmanuel Macronen hitzak dira 2017ko otsailean, non eta Aljerian, independentzia indarrez eta odolez irabazi zuen Frantziako kolonia ohi batean. Urte luze-tako krimen horren ondorioz, kanakak gutxiengo dira haien herrian, eta halere, igandean independentzia lortzeaz izan dira: 10.000 bozen alde estuarekin irabazi dute Frantzian segitzearen aldekoek, baina 2018tik independentistak %3,4 hazi dira. Joera hori mantentzea nahikoa litzateke hirugarren erreferendumean, 2022an seguruena, kanakak kolonizazioaren krimena historiaren zaborrontzira botatzeko. Hala bedi.





EUSKARAREN ALDEKO
MUGIMENDUARENTZAT
KOLPE LATZA DA
PLATERUENA IXTEA. EREDU
BATEN AGORTZEA AL
DAKAR? EZ DAKIT, BAINA
DENOK KOLEKTIBOKI
BIRPENTSATU BEHARKO
DITUGU AZPIEGITURAK
ETA ABAR. BERRI TXARRA
BENETAN

@garaigoikoa



PLATERUENAK ATEAK
ITXI DITU. LAGUNTZERA
ETORTZEN DIRENERAKO,
AGIAN JADA EZ DA EGONGO
ZER LAGUNDU

@Marlon_Brandy



10 URTE PASA DIREN ARREN,
URTERO GAURKO EGUNEZ
BURUAN IZATEN DITUT
ATXILOTU GINTUZTEN
GAUEKO IRUDIAK. ZENBATI
GERTATUKO OTE ZAIGU
HERRI HONETAN... BAINA
HORRELAKO BIZIPENAK EZ
DUTE LEKURIK SALDU NAHI
DIGUTEN ERRELATOAN

@ItsasoLekuona



IRUIN SEME-ALABOK,
HASI PENTSATZEN NOLA
PUZTUKO DUZUEN PAPARRA
10 URTE BARRU, ESATEAN:
"SUFRITU? ZUK AL DAKIZU
ZER DEN LAU LURRIKARA
ETA PANDEMIA BAT
PASATZEA?"

@landergarro



TORRAK ZABALDUA

Torraren inhabilitazioak independentismoa mobilizarazi du

LA DIRECTA

Espero zen bezala, Auzitegi Gorenako arlo penaleko bigarren aretoak berretsi egin du Kataluniako Auzitegi Nagusiak bere garaian emandako auzia, eta urte eta erdiz kargu publikoetarako inhabilitatu du Generalitateko lehendakari Quim Torra, Espainiako Hauteskunde Batzordearen agindua desobeditu izanagatik. Hauteskunde Batzordeak preso politikoen askatasunaren aldeko pankarta kentzeko agindu zion Espainiako Gorteetarako hauteskunde garaian, 2019ko apirilean. Torrari sententzia irailaren 28 arratsaldean komunikatu dio Auzitegi Gorenak, eta horrek dakar atoa kargua uztea.

Independentismo ekintzaileak Quim Torraren kargugabetzea aukera moduan planteatu du, bere mobilizazio gaitasuna indartzeko, nahiz eta zazpi hilabete daramatzan koronabirusaren epidemiak salbuespenezko testuingurua ezartzen, eta nahiz eta alderdi politikoen eta erakunde soberanisten inguruko ezadostasunek higadura sortu duten. Òmnium Culturelek egun batzuk lehenago dagoeneko iragarri zuen Auzitegi Gorenaren epaia jakin orduko Kataluniako herri handienetako plaza nagusietan elkarretaratzeak deituko zituela, eta deialdi horietara azkenik ANC ere batu zen. Beren aldetik, CDRek dei egin zuten elkarretaratze horietako askotara batzeko.

Sant Jaume plaza izan da Bartzelonako protesten erdigunea joan den astean: ehunka lagunek bete zuten gunea eta gogor txalo jo zioten lehendakariari. Lehendakaria bere gobernuaz eta politikako beste lider batzuek inguratuta agertu zen. Plazan bildutako jendea manifestazioan abiatu zen Parlamentera, kargugabetutako lehendakaria buru zela.

Bartzelonako CDRek elkarretaratzea deitu zuten Grazia auzoan eta manifestazioan jaitsi ziren. Mossoen antidisturbio katearekin topo egin zuten; hesiz pasoa ixten zioten manifestazioari. Manifestari batzuek txerri buruak jaurti zizkieten poliziei. Ondoren, manifestari gehienek Gran Vía-ra jo zuten eta Lluís Companys etorbidean barna Ciutadella parkearen ateetara iritsi ziren. Hainbatek ateak behartu zituzten eta ehunka pertsonak lortu zuen Kataluniako Parlamenteko ateetaraino iristea, baina berehala bidali zituzten Mossoek. Manifestari batzuek, modu dispersatuan, Urquinaona plazara eta San Pedro ingurura jo zuten eta han hainbat edukiontzik su hartu zuten, Brimoa (Mossoen brigada mugikorra) mugiaraziz.

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Gela bat norberarena



ARITZ GALARRAGA

Baztan da lekua. Jakitunek badakite. Ramon Andres, adibidez, bertara joan zen bizitzera, Elizondora, orain bizpahiru urte; hain zuzen, Bartzelonako prezio abusuzkoetatik eskapo, bere liburu guztientzako etxe baten bila. Eta ondo etorri zaio-la dirudi, *Filosofía y consuelo de la música* argitaratu berri baitu, 1.000 orrialdetik goitiko liburutzarra. Aurretik, 80en bukaeran, Eduardo Gil Berak ere egin zuen ballerako bidea, Narbartera, Lakoizketarena zen etxetik ez sobera urrun laketzera. Gil Berak 90etatik hona izan duen emaria hemen laburtzen saiatzea zentzugabea da. Seguru Mikeltxenean ondu duela azken itzulpena, *Lamento de paz*, Erasmorena. Eta 1995ean joan zen Miguel Sanchez-Ostiz Lekarozera, bizitza lasai, ordenatuago baten bila –“*De no haberme venido a vivir aquí igual doy hasta en majareta*”–. Ondoen bizi izan den lekua omen, Baztan. Orain, Madrilen denbora bat eman eta gero, bueltan dugu berriz, Arizkungo Zamarrenean. Baztan da, definitiboki, *the place to be*.

Baztanen aurkitu dute hiru idazle horiek, eta beste askok –pintoreak etortzen zaizkit burura, Baztango eskola errepikakor horretakoak esate batera–, nolabaiteko konfort, bake, paradisu, nolabaiteko *locus amoenus* bat. Tira, halakorik oraindik aurkitzeko parada izan ez dugunoi, apalagoa izan zen Virginia Woolfen hura geratzen zaigu behintzat: gela bat norberarena. Ez da txikikeria –galde diezaiotela, bestela, 70 metro koadroko etxea beste hiru bizikiderekin partekatu behar duenari–. Eta ez da samurra: norbere gelan lasaiki egoten ez jakitetik datorke gizakiaren malura; inoiz aipatu izan dugu Pascalek esan zuena, hain da bikaina. Ildo beretik Sanchez-Ostiz, bere azken liburuan, *Breves del desconcierto* izenekoa: gure gelaren baitako bidaia abiatzean, nekez itzultzen gara atzera. Eta agian horregatik kosta egiten zaigu abiatzea. Behin abiatuta, ordea, azken geltokira heldu artekoa da. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



“SEMEA AUSART JOKATZEKO GAI IZAN DA ETA SISTEMAK MESPRETUXUZ TRATATU DU”

JUAN CUATRECASAS, GAZTELUETAKO SEXU ERASOEN BIKTIMAREN AITA

Leioako Gaztelueta ikastetxean sexu abusuak egin zituen irakasleari hamaika urtetik bi urtera jaitsi dio espetxe-zigorra Espainiako Auzitegi Gorenak, eta oso haserre mintzatu da biktimaren aita: “Epaia arrazoiak ematen digu, semea sexu abusuen biktima dela onartzen du, baina hori ez da nahikoa; iraingarria eta onartezina da auzitegiak pentsatzea gertakarietako batzuk ez daudela nahikoa frogatuta eta mesede eskasa egiten dio sexu indarkeriaren kontrako borrokari”. Semea lur jota dagoela kontatu du, ez duela halakorik merezi. **RADIO EUSKADI (2020/09/29)**



EKONOMIAREN TALAIAN

Kapitalismo zelataria



JUAN MARI ARREGI

Kapitalismo ekonomikoa, komertziala, industrial edo finantzarioa ondo ezagutzen ditugu, urte asko daramatzagulako horiek jasaten. Bada orde bestea kapitalismo bat, zelataria, orain sartu digutena, eta bitxia bada ere, herritarrek gara bere elikagai eta oinarria. Horrela ondorioztatzen du Shoshana Zuboffek *The Age of Surveillance Capitalism* (Kapitalismo Zelatariaren Garaia) liburuan, duela gutxi gaztelaniara itzulia, Paidós argitaletxearen eskutik.

Googlek asmatu zuen kapitalismo hori. Facebookek, Microsoftek eta Amazonek bide bera jarraitu zuten eta negozio horretan sartuta daude, kapitalismo zelataria herritarren bizitzekin multinazional horiek elikatzen duten negozio handia baita. Etxetan sartu zen bere baliabide teknologikoen bidez (internet), eta datuak, ohiturak, irakurketak, aisialdia, gastronomia... Dena xurgatzen du. Enpresa horiek gure etorkizuna moldatzen dute beren produktuak eskaintzeko. Ni neu bezala, zu ere konturatuko zinen interneten liburu bat, botika bat, arropa bat, ardo bat, edozein produktu bilatu baduzu, hurrengo egunean webgune gehienetan horien publikitate agertuko zaizula, eros dezazula eskatzeko. Praktika hori kapitalismo zelatariaren parte da. Gizakiaren portaera ezagutzen dute eta gure datuekin negozioa egiteko moldatzen dute.

Ikasgai bat ateratzea komeniko litzateke kapitalismo mota berri honetatik. Jakin dezagun erabat kontrolatuta gaudela. Eta gure kontsumoa kontrolatzen badigute, zer ez digute kontrolatuko? Googleko presidentek esan zuen: "Ez dugu ezer teklatu beharrik. Badakigu non zaudeten eta non izan zareten, eta gutxi gorabehera jakin dezakegu zer pentsatzen ari zareten". Etengabeko zelatatze horrekin, subiranotasun pertsonala ere lapurtuko digu kapitalismoak. ●

ANALISIA



JIMMY JAZZ GASTEIZ

Teloia altxa eta...

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

Kultura gara eta arriskuan gaude". Badira lau hilabete S.O.S. Kultura plataformak ohartarazpena egin zuenetik, berez prekario den euskal kulturaren sektoreak pandemiaren ondorioz bizi zuen egoeraren larritasuna bistaratu. Sektoreko hainbat eragilek sinatutako *Kultura gara* manifestuaren bidez, etorkizun hurbileko balizko bi eszenatoki iragarri zituzten: oihala altxa eta ekosistema kultural bizia ageri zen horietako batean, oihala goratu eta ezereza nagusitzen zen bestean.

Sektorearen biziraupena bermatzeko neurriak exijituz, gobernu zein erakunde interpelatu zituen plataformak, eta hala segi dute egiten ikuskizunen sektoreko profesionalak batzen dituen Alerta Gorria ekimenak edota ekitaldi eta ikuskizunetako teknikarien Teknikariok sindikatuak. Alabaina, eskariei entzungor, birusaren agerpenarekin hartutako neurriek idortutako eremua basamortutzea eragin du agintarien utzikariak.

Oihala hasi da lurretik zentimetro batzuk aldentzen, eta irekitako zirrikitutik begiztatu daitekeen antz gehiago dauka uda aurretik iragarritako bi eszenatiketak batekin: deus ez bistara, astun sumatu daitezkeen hutsunea eta isilunea besterik ez. Oihala gehixeago goratzean ezerez hori apurtuko duen zerbaitekin topo egiteko esperoan egon daiteke bat, baina toki gutxi uzten dio esperantzari berriki jaso dugun berriak: Durangoko Plateruenak ateak itxiko ditu, azken urteetako zailtasunei COVID-19aren eragina batuta, proiektuaren bideragarritasuna ezinezkotzat jota. Gauzak aldatu ezean –eta bizkor–, sektorearen egoera larria arintzeko eskumena dutenak axolagabe segiz gero, Plateruenaren izena buru duen zerrenda beltz baten aurrean geundeko.

Bistan da herri honetan agintzen dutenen agenda politikoetan kultura ez dela ageri azken hilabeteetan seta handiz bultzatu beharrezkotzat jo dituzten industrien artean. "Koma ekonomikoa" saihesteari dagokionez, kapitalismoaren zimenduak indartzeari begira, kultural inbertitzeak ez baitirudi negozioirik onena. Are gehiago, kaltegarri ere suerta dakieke deskuiduan. Izan ere, "arteak ez da errealitatea islatzeko ispilua, baizik eta honi forma emateko mailua", zioen Bertolt Brechek; eta kulturak, arte espresioen edukiontzia denez gero, badu potentziala mailukadaz mailukada inguratzen gaituena eraldatzeko. Ziurgabetasuna nagusi den garaiotan, bederen, zerbait ez oso desiragarria galtzeko dezente dutenentzat.

Poliki-poliki ari da oihala gehixeago altxatzen eta prekario ageri da eszenatokia. Pertsonal murrizta, nekea eta artega horien aurpegietan, segurtasun distantzia gordetzen duten aulki solte batzuk, eta saiata ere elkarren arteko distantzia kirurgikora ohitzen ez diren ikusleria eta artistak. Eta han, izkina batean, mailu batena dirudien itzala; egoeraren gordina tarteko egonik ere, mailua herriak duen artean dena galdurik ez dagoen seinale. ●

Beste preso bat hil da Zaballako espetxean

ARGIA

Ziegan hilotz aurkitu dute 35 urteko gasteiztarra, Arabako Salhaketak jakitera eman duenez. Irailean bi preso hil dira Zaballan, 2020an lau momentuz, guztiak "arrazoi ez-naturalen" ondorioz. 2019an bost izan ziren hildakoak.

EZKUTUAN

Espetxeetako heriotzak ezkutatzeko "politika sistematikoa" salatu du Salhaketak, COVID-19aren pandemia egoeran areagotu egin den jarrera. 2020an gutxienez 125 dira Espainiako Estatuko espetxeetan hil diren presoak. "Zer gertatzen da? Zergatik ezkututzen dituzte heriotza hauek? Zergatik ez dira erantzukizunak eskatzen edo, gutxienez, ikertzen? Gauza bera gertatuko litzateke biktimak beste batzuk izango balira?".

SAIHESTU DAITEZKE

Heriotza hauek saihesteko ez dela ezer egiten ere kritikatu du Salhaketak. "Onar al daitezke heriotzak zigorgabetasunean geratzea Estatuko erakunde batean, hau da, espetxe-erakundeetan?". "Presozidio" baten aurrean gaudela eta heriotza gehienak legea betetze hutsarekin saihestuko liratekeela azpimarratu du elkarteak. Aurreko heriotzekin bezala, elkarretaratzea egin zuten Gasteizen, gertaturikoa salatzeke.

MARRAZKI BIDEZ AGURTU DUTE QUINO

ARGENTINA. 88 urterekin hil da Salvador Lavado 'Quino', Mafalda pertsonaia eza-gun eta estimatuaren egile argentinarra. Nazioarteko umorista grafiko garrantzitsuenen artean denaren heriotzak anitz mindu ditu, tartean marrazkilariak. Askok bineten bidez egin dizkiote eskertzak eta agurrak, baita Euskal Herrian ere. Irudian, Brasilgo Carlos Latuff artistaren agurra ("Borrokak aurrera jarraitzen du!").



USTELKERIA 22.000 milioi

euro erabili zituen 2012an Espainiako Gobernuak, Bankia diru publikoz erreskatatzeko: Espainiako Estatuan inoiz jazotako finantza erreskate handiena. Aurreko urtean atera zen burtsara Bankia, PPko Rodrigo Rato presidente zuela, baina inbertitzaileak ohartu ziren balio askorik ez zuten aktibo toxikoz josia zegoela bankua. Orain, Espainiako Auzitegi Nazionalak absolutu egin ditu Bankia burtsara ateratzeagatik auzipetuta zeuden 34 norbanakoak.



POLIZIA GEHIEGIKERIA. Bilboko udaltzairek 19 urteko gazte arrazializatu bat jipoitu zuten irailaren 12an, San Frantzisko auzotik gertu, eta polizia-etxean atxiloturik zutela bere buruaz beste egiten saiatu zen, SOS Arrazakeriak azaldu duenez. "Polizia basakeria arrazista" salatu dute.



SEXU ERASOAK. Ikerketa batek agerian utzi duenez, OME, Unicef eta munduko erakunde humanitario nagusietako boluntario batzuek Kongon zenbait emakumeren aurkako sexu-abusuak egin dituzte. 2018 eta 2020 artean izan zen, ebolaren aurka laguntzan.



HOMOFOBIA. Homosexuala dela publikoki esana duen San Diego futbol talde estatubatuarreko jokalariek aurkariarengandik irain homofobia jaso eta azkar hartu zuen erabakia San Diegoko entrenatzaileak: zelaia berehala uzteko agindu zien bere jokalariei. Nazioartera zabaldu da irudia.

ITSAS-GARRAIO ARAUGABEAREN EMAITZAK DIRA **RHOSUS ZEIN WAKASHIO-K ERAGIN ISTRIPUAK**

Itsas-ontziek belztu dute aurtengo uda-giroa: *Wakashio* izenekoak marea beltza eragin zuen Maurizio uhartean eta *Rhosus*-ek Beirut hiriburua xehatu zuen. Nola ez, kalte ekologiko, ekonomiko eta sozial ikaragarriak ondorioztatuz bat ala bestean. Itsas-ontziek eragin hondamendien zerrenda luzatuz doa eta neurri politikorik hartzen ez bada, argi da luzatzen segituko duela: diru-goseak bideraturiko itsas-garraioa "araugabeturik" delako. European agian arriskutik kanpo gaude, europar legedia zorrotzuz joan delako. Baina legedi hau saihestuz, Hego hemisferioan dabilta "zakorrontzi" izendaturiko ontziak.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Aurtengo uztailaren 25ean *Wakashio* ontzi japoniarrak harkaitz bat jo eta 1.000 tonaz gora fuel-olio isuri zuen Maurizio uhartearen kostan (Afrika). Zehazkiago, Indiako Ozeanoaren mendebaldean kokaturiko gune babestuetan: Blue Bay itsas-parkean, Ile aux aigrettes erreserban eta Pointe-d'Esnyko gune heze babestuan; hiru eremu hauek "ezinbestekoak izan ki itsas-oreka segurtatzeko", UNESCOren Ramsar sailkapenari segi. Kantitatez aitzineko marea beltzetan baino askoz gutiago fuel-olio barreiatu bazen ere, suntsitu dezakeen bioaniztasuna ikaragarria da –tartean 38 koral mota eta 800 itsas-espezie arriskuan jarritz–. "Hidrokarburu toxikoek koralak 'txurituko' dituzte, haien heriotza eraginez", Jacek Tronczynski ikerlariak BBC komunikabideari azaldu dionez.

Hortik gutxira, agorrilaren 4an beste ontzi batek egin zuen aktualitatea: *Rhosus* ontziak, Libanoko Beirut hiriburuan porturatuak. Bere baitan 2.750 tona amonio nitrato zeramatzan eta "bonba flotatzaile" gisa definitu genuen Beirut xehatu duen ontzia. Alta, jakina zen "bonba flotatzaile" bat zutela 2013ko irailaz geroztik portuan –ontzia hustu eta portuko edukiontzietan zuten orduz geroztik ongaria eta lehergailuak egiteko erabilitako amonio nitratoa–.

Iragarpen txar emaile izan gabe, beste ontzi bat aipatu dezakegu: *Safer* ontzi zaharkitua, 2015az geroztik Yemeneko kostan abandonaturikoa, inolako kontrol eta mantentze lanik gabe bereber utzita-

koa. 1,4 milioi petrolio upel ditu eta istripu bat gertatuz gero, sekula ikusi gabeko hondamendi ekologikoa litzateke. "*Safer* petrolio-ontzia literalki puskatzen ari da. 45 urte ditu eta badu bi hamarkada ontzi-botalekuan egon beharko litzatekeela", irakur daiteke *Le Courrier International*-eko *Un pétrolier abandonné menace à tout moment de noircir la mer Rouge* (Une oro Itsas Gorria belztea mehatxatzen dabil petrolio-ontzi abandonatu bat) erreportajea.

Wakashio, *Rhosus* eta *Safer* hiru izen errealitate bera izendatzeko. Bistan da beste izen batzuk ere badirela, baina tamalez istripuek dizkigute –berantegi– ezagutarazten. Adituen datuei segi, ontzien %10-15 dira "arriskutsuak". Aipatu hiru itsas-ontzien arteko lotura argitzen du Claire Flécher itsas-garraioan aditua den soziologoak *Mediapart*-i eskainiriko *De Beyrouth à l'île Maurice, le problème de la dérégulation du transport maritime* (Beirutetik Maurizio uhartera, itsas-garraioaren araugabetzearen arazoa) elkarrizketa mamitsuan. Mundu mailako garraioen %90 itsasotik egin arren, sektore "araugabeturikoa" delad dio. Horrela dabilta, inolako betebeharririk gabe, legedi arin baten menpe eta kontrol arras gutxirekin, milaka ontzi –tartean produktu kutsakorrez eta toxikoz beterikoak–. "*Wakashio* ala *Rhosus* ontziek argiki erakusten digute sektore horren konplexutasuna. Hiru eragile dira –armadorea (ontziaren jabea), pleitaria (ontzia erabiltzen duena) eta on-

tziaren Estatua (erregistratua den administrazioa), baina arduren banaketa ez da batere argia eta bakoitzak bestearen eskuetan uzten du betebeharra", Flécherren hitzetan.

Antolaketa hau bideratzen duelako diru-goseak: kostuak ahal bezainbat ttipitzeko logika nagusi da sektorean. Hori horrela, nahiz eta armadoreen gehien-go Mendebaldekoa izan, zerga-paradisu izan ohi diren estatuetan erregistraturik dituzte ontziak –hiru laurdenak Marshall Uharteetan, Liberian, Maltan, Panaman eta Bahametan dira–. Ingurumen-normak, mantentze-lanak eta zergak saihesteko bidea dute hau. Gainera, azpikontratatzekak ohikoak dira, ardurez desjabetzeko gisan. Hamarkadaz hamarkada emendatuz doanez itsas-garraioa, askok segitzen dute ontzi zaharkituekin, merkatua aurrera eramateko, eta ontzi berrien eraikitzeak gastuak saihesteko.

Wakashio ontziko kapitaina urtarrilaz geroztik zen itsasoan, eta berekin zituen marinel batzuk urte oso bat zeramaten lurreratu gabe. Koronabirusagatik eskaera berririk ez ukanki, ozeanoan gelditzea erabakia zuten, portuko-zergak ez pagatzeko. "Ondorioztatu dezakegu itsasoratze luze horiek eragindako nekeak zerikusia izan dezakeela bizi dugun istripuen emendioarekin", soziologoak zehazten duenez. Armadorea japoniarrak da, haatik Panaman erregistratua zuen ontzia. Berdin-berdin, Beirut xehatu duen ontziarentzat: armadorea errusiarra da, baina Charalambos Manoli zi-



MAREA BELTZA MAURIZION

WAKASHIO PETROLIO-ONTZIAK
ERAGIN ZUEN HONDAMENDIA
UZTAILAREN 25EAN. 800 ITSAS-
ESPEZIE DIRA ARRISKUAN,
AFRIKAKO GREENPEACEK
OHARTARAZI DUENEZ.

pretarrari utzia zion –azken hau *Panama Papers* zerrendan agertu zen eta iruzurkeriako aurpegi ezaguna da–; Moldavian erregistratua zuten ontzia. Azken finean, “bonba flotatzailea” Beiruten abandonatzeko hautua egina zuten. Ohikoa da ontzia portu batean ala itsasoan abandonatzea: Nazioarteko Itsas Erakundeak 2004an hasitako kontaketa arabera, 366 ontzi dira itsasoan barrena abandonaturik. Emendatuz doa kopurua, urtero 40-50 direlako abandonatzen. Gehienetan, ontzi zaharkituak dira –ulertu, hausteko arrisku handikoak–.

Istripuen zerrendaren parean nolatan sektorea ez den gehiago arautzen azaltzerakoan bi arrazoi plazaratzen ditu soziologoak: Batetik, armadoreak “eragile boteretsuak” direlako. Lobby lan ikaragarria egiten dabilta eta Nazioarteko Itsas Erakundea bezalako egi-

turetan sekulako eragina dute. Bestetik, lehen lerroan diren marinela herri pobreetakoak direlako. Txiro eta eskubide gutxiarekin, eragiteko indar gutxi dute eta gainera, langileria prekario hau ez da nazioarteko erakunde lehentasunetan. Deigarria da ikustea nolatan hila-bete luzez *Rhosus* ontzian atxiki zituzte marinela, amonio nitrato artean, Beiruten lurreratzea debekatuz.

LASAI, EUROPA EZ DA GERTATUKO

Corinne Lepage abokatu ekologistaren begirada ezinbestekoa da itsas-garraioaren errealitateari begiratzerakoan. 1999an *Erika*-k eragin marea beltzaren aferan abokatua izan zen, Total enpresaren kontrako epaiketari. “Europar, *Erika* aferari esker jurisprudentzia inportante bat daukagu eta ondorioztatu duen legegariari esker ez dugu gehiago katastro-

ferik; sinpleki: ‘zakarrontzi ontziak’ ez direlako gehiago Europatik pasatzen”. *Torrey-Canyon* 1967an, *Amoco-Cadiz* 1978an, *Exxon-Valdez* 1989an, *Erika* 1999an, *Prestige* 2002an, marea beltzek bideratutakoa da itsas-garraioaren europar legedia. Istripuz istripu, zorroz-turiko legedia saihesteko gisan, bide berriak hartzen dabilta ontziak. Argi du: “‘Zakarrontzi ontziak’ ez dira desagertu, hego hemisferioan dabilta”. Hori horrela, Europak bideratu neurriak nazioartera zabaltzea ezinbestekotzat du eta espero du *Wakashio* ontziak eragindako marea beltzak horretara bideratzea. Isunak ere arabera izan behar lukeela dio: “Ingurumenean eragin kalteengatik asko pagatu behar lukete; ingurumena-arentzat arriskuak hartzea baino interesgarriagoa izan behar luke inbestitzeak armadorearentzat”. ●

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f



EUSKAL HERRI BAT IZAN BEHAR BADA, EUSKALDUNA BEHAR DU IZAN



Euskarari eta Euskal Herriari emana da bere buruaren jabe egin zenez geroztik. Praktikatu ditu militantzia batzuk eta besteak, iparrorratza gidari, Ipar Euskal Herria ardatz. Txoria bezain alegera jin zaigu, nahiz belaunaldi bat betikotz zauritu zuen minak bere horretan irauten duen, sendaezin.

 **MIEL A. ELUSTONDO**  **ZALDI ERO**

Iduri du Zuberoan ere lanik frango badela euskaraz bizitzen. Adinekoek ontsa badakite. Gazteei denez bezainbatean, ez da ber egoera.

Jakin behar duzu herri txiki eta ertainetan naturalki transmititu dela euskara. Hirian, hots, Maule-Lextarren, besterik da. XIX. mendearen hondarrean nahiz XX. mendearen hastapenean hasi zen erdalduntzen Maule-Lextarre. Hemen bazen industria. Bazen zapatagintza, bazen kautxugintza... eta industria horrek jendea ekarri zuen hona. Eta horrek eragina izan du euskararen gibelatzean. Ondotik, Espainiako gerla zibilak ere ez zuen lagundu, bistan dena, gerlarekin, nafar

eta aragoitar anitz etorri baitziren Maule-Lextarrera. Erdaldunak ziren gehien-gehienak, eta eman zioten Maule-Lextarrerri hein bateko espainol kutsua.

Besterik izan da, haatik, herri txikietan, erran duzunez.

Nihaur, 6 urtetan hasi nintzen frantsesaren ikasten eskolan. Etxebarek bazuen orduan eskolarik, eta hara sartu naizelarik, frantsesa ikasi nuen. Baina josteta uneetan euskaraz ari ginen, eskolan ere, erran nahi dut, eta errejentak ez zuen ezer erraten. Gertatu izan da, hala ere, errejent batzuk erratea: *“A l'école on parle le français!”* (Eskolan frantsesez hitz

egiten da!), baina Etxebarren ez. Herri gehienetan, ez, erranen nuke. Gure etxean euskaraz ari ginen beti, eta ene gurasoek euskaldun kontzientzia bai, baina politika kontzientziarik ez zuten.

Batzuek eta besteek errana da gerlek ekarri zutela alde honetako euskaldunen frantsestea.

Bai, eta gehien bat 1914-1918ko gerlak, “14ko Gerla Handi” deituak. “Eskuara baik ez zakiten haiek, *mort pour la patrie*”, Gorka Knörren kantua da, ezta?, oso kantu indartsua. Hala 1914ko Gerlak, nola Bigarren Mundu Gerlak bere partea egin dute hemengo jendea frantsesteke, seguru.



Allande Sokarros Estekondo

ETXEBARRE, 1957



Allande Sokarros Estekondo (Etxebarre, 1957). Pasta oneko zubero-tarra, kazetari, itzultzaile, idazle, militante, hautetsi, euskaltzain ur-gazle... Iparretarrak IK-ko kide iza-na, Zuberoako Herri Elkargoko pre-sidenteorde ohi, Sü Azia elkarteko kide, hamaika ditu lan eginak, egin-kizun dituenak bezainbat. Bide ho-rretan, hala ere, zenbait liburu ditu onduak: *Maule-Lextarre, Züberoa Herria* –Jean-Louis Davantekin lan-kidetzan–, *Ziberouko Egunaria, Hiz-tegi Ttipia Euskara Batua-Zuberera / Zuberera-Euskara Batua...* Zinez ak-tibo da sare sozialetan Twitter nahiz Facebook-en, eta *Hitzapitz* bloga ere badu. Oroz lehen, euskararen zer-bitzari da, “baina politika ikuspuntu batetik, eta politika ikuspegi batera”.

Gurasoek ez zizuten kontzientzia politikorik. Zuk baduzu.

Berandu hartu nuen kontzientzia, 1978-79 inguru horretan. Iparralde zale makurra naiz, baina aitortu behar dut nire kontzientzia politikoa etorri zela, parte batetik, bederen, Hegoal-detik. Lehenik, German Rodríguezen heriotza hura! Sasoi hartan argazki-lari nahi nuen saiatu, eta joan nintzen Hegoalderat argazki batzuen har-tzera, Iruñeko sanferminetara, istilu egun haietan. Sekulako liskarrak izan ziren, eta horrek puruki inarrosi nin-duen. Bigarrenik, beste gertakari larri bat izan zen kausa: Txomin Olhagarai eta Ramuntxo Arruizen hiltzea Baio-nan, 1980ko martxoaren 26an. Bi gazte abertzale, Ipar Euskal Herrian borro-kan hil diren lehenbizikoak. Sekulako txokea izan zen haien hiltzea. Agian, oroitzen zara: lehergailu baten para-tzen ari zirelarik, honek eztanda egin zuen eta biak batean hil ziren. Hogeitsu urteko gazteak ziren.

Bi heriotza...

Baina, otoi, ez dut borrokaz ikuspegi mortiferorik. Ez dut jasaten ahal. “Iraul-tza ala hil”, eta horrelako tentelkeriak. “Iraul-tza eta bizi!”, behar du. Ikuspegi hits eta ilun hori eskuin muturrak iza-tea, ontsa liteke, baina guk? Otoi! Hala ere, nahi izaten dut beti Txomin [Olha-garai] eta Ramuntxoren [Arruiz] hil-tzea gogorarazi, baina mezurik ezarri gabe: “Jo eta ke, ira-bazi arte!” eta horrela-korik ez. Hala ere, hil zirela Euskal Herria defendatzeagatik.

Bi gertakariok inarrosi zintuzten.

Orduan hasi nintzen pentsatzen. 1978an Germán Rodríguez hil zuten Iruñean, eta, ondoko urtean, Gladys del Estal Tute-ran. Eta, gero, Txomin eta Ramuntxo-ren hiltzea. Urte horietan dut abertzale-tasun kontzientziaren hartzea, eta euskaldun kontzientzia ere bai. Zube-roatik kanpo, hala ere! Eta hasi nin-tzen *Zeruko Argia* irakurtzen. Hasie-ra batean ez nuen tutik ere ulertzen. Uste nuen ateratze, Atharratze zela! Jalgi erran nahi zuela ulertu nuen arte! Hiztegi txiki bat egin behar izan nuen, zubereratik euskara baturakoa, *Zeruko Argia* irakurriz osatu nuena. Horren

ondotik, idazten ere hasi nintzen, *Zeru-ko Argia*-n berean. Ez dira, beharbada, idatzi diren kalitate handieneko lanak, baina hastapenak dituzu!

Hiletatik bizietara igaran gara, noizbait ere.

Zeruko Argia-ren garai horretan, kul-tur asteak egiten genituen Zuberoan, eta hori biziki garrantzitsua izan zen askorentzat, euskal kontzientziaz ha-rro izaten lagundu baikaitu. Bazen el-karte bat, antolatzaile, Bedaroa izene-koa, hots, “belarra egiteko aroa” duzu bedaroa; parte batez, ùhaitza kultur etxe bilakatuko zen. Bedaroa hartan ezagutu nituen nik lehen abertzaleak: Jean-Louis Davant, Ttitika Rekalt, eta beste... Enbatakoak ere baziren hor. 70eko hamarkadan mundu horrekin loturarik ez nuen nik, baina giro horre-tan sortu zen, demagun, Piper Beltx an-tzerki taldea. Beraiek izan ziren kutsu politikoa zuen kultur giroa hazi zuten lehenak. Pette Etxekopar, Xarles Hoki eta beste zenituen Piper Beltxen...

Gizonezkoak, denak.

Nire oroitzapenetan ez da emazterik garai hartan, eta ez, hala ere, batere baztertzen genituelako. Hautetsi izana naiz, eta ohartu naiz, batzuetan, berak baztertzen direla. Herri batean haute-tsi zerrenda egiten delarik, emazteek ezetz erraten dute gehienek. Gizon gu-tik erraten du ezetz. Gizonez-koak maite du boterearen ustekeria, ilusio hori. Emaztea, oro har, ez da batere espiritu berdi-nekoa.

Ni erabat ETaren kontrakoa nintzen, eta naiz. Ez ETaren borrokaren kontrakoa, hala ere, ETaren jokamoldearen kontrakoa, ETaren ikuspegi totalitarioaren kontrakoa baizik”

Hautetsia izana hamabost bat urtez, eta kazetari, eta itzultzaile, eta euskaltzale, eta militante...

Militantzia dago horien guztien gibelean, prefosta. 1980 inguruan bi-lakatu nintzen militante politikoa eta, politikarekiko lehenbiziko lotura Mixel Labeguerierekin egin nuen, Enbatako sortzaileetarik bat izan baitzen Labe-guerie! Hark François Bayrourengana eraman ninduen eta, frantses zentrista haiekin egon nintzen sei hilabete, ez gehiago! Mixel Labegueriek ez ninduen Euskal Herrian erre nahi, eta Biarnora eraman ninduen. Oroitzen naiz, han ginelarik, galdegin ziotela kantatzen



zuen kantu haietarik bat kanta zezan, eta berak, niri begi keinua egin eta “Gu gira Euskadiko, gazteri berria...” hasi zen kantatzen. “Zozoilo horiek ez dute tutik ulertuko!”, erranez bere baitan.

Militantzia politikoaz ari, Iparretarrak erakunde armatuko kide izan zinen, IK-koa.

Baigorriko gertakari horren osteko militantea naiz. Horrek eragin handia izan zuen, gertaera hark jende andana beldurtu zuen, hoztu, eta erabat beste militante belaunaldi bat sartu zuen IKn. Erabat beste bat. Batzuk geratu ziren, aurrekoetatik, baina militante belaunaldi berri baten aldi izan zen, eta ni, haien artean izan nintzen. IK beti saiatu zen ahal bezain guti arrisku jartzen, hilak ez eragiteko. Borrokaren gogortzerik, etsaien hiltzerik... IK-k ez zuen sekula horrelako erabakirik hartu, eta sekula ez genuen hartuko. Gertatu zirenak, deskalabruz gertatu ziren, ez, hala ere, nahitara.

1983an Jean-Louis Larre *Popo* desagertu zen.

Gure militante baitan dagoen zauri sendaezina da. Bilatu genuen *Popo*, bai, bilatu genuenez! Gure militante bat desagertu zela zabaldu aitzin, zurrumurruak baziren. Ihes egin zutela kide gehienek, eta, haietarik batek, basora buruz ihes egin zuela. Zurrumuru hori bazen, baina handik bi asteren buruan IK-k ofizialki erran zuen: “Gutarik batek ez du ihes egitea lortu, eta ez dakigu non den”. Anartean hasi ginen bilaketak egiten. Bilatu dugu AEBetaraino, eta Irlandaraino, kon-

taktu zenbaiten bidez. Baina ez genuen sekula ere aztarnarik aurkitu.

Eta?

Indarra hartu zuen hipotesia da poliziak harrapatu zuela, zeren lau orduren buruan fiskaltzak jendarmeriari auzia kendu, eta ezarri zuen polizia judizialaren eskuetan. Bitxikeriak ere izan ziren, berri faltsu zabaltze batzuk. Ez, beharbada, poliziaren aldetik etorriak; ez denak. Gertatu ziren berri faltsu horien hedatzeak guri bitxi iruditu zitzaizkigun. Zurrumuru horietarik batzuek pentsarazi ziguten ez zutenez gure laguna harrapatu, edo tirokatu. *Popo* ez zegoen armatua, hori segurtatzen ahal dugu. Beste hipotesirik ere izaten ahal da, leku hartan bada urmaelik asko... Halako batean erori zen, edo ez. Une honetan sendaezinezko zauri bat da *Popo*, oraindik ere.

Hautetsi izana zaitugunez, urte hauetan egitura berriak altxatzen ikusi duzu, Euskal Elkargoa, Euskararen Erakunde Publikoa...

Erakunde horiek borrokaren ondorio izan dira, nolabait. Eta IK-k eraman duen borrokaren ondorio ere bai. Baina guk ikusi ez genuen zepoa da hori: frantses sistemaren barruan gara beti, eta, hor, “elebitasuna” da lelo nagusia. Eta Ipar Euskal Herrian ez da elebitasunik batere! Batere ez! Zer dute elebitasuna? Euskaraz dena ere frantsesez ezartzea!... Hori miresgarria da. Gaur egun Euskararen Erakunde Publikoak bultzatzen duen politika hori da. Euskaraz bakarrik zegoena ere, gorde genituen gure eremu zaindu horiek ere



IK

“Ez dugu inoiz jakin zenbat militante ginen. Badira zifrak, baina ez dira guk emanak. Poliziak erraten zuen IK-ko komandoko kide bakoitzaren inguruan bospasei militante bazirela. Eta nonbait han ziren. Zifra hori atera zuen gure kontra borrokatzen zen edo Frantziaren zerbitzuan zen Charles Sanz kapitainak, gero koronel bihurtu zenak. Aita, espainiar errepublikarra zuen, gerla denboran Frantziara ihes egina. Maule-Lextarreko jendarmerian egon zen, eta, ondoren, ikerketa zerbitzuko buru bilakatu zen. IKren atzetik ibili zen jardule nagusia! Donibane Lohizuneko emazte batekin ezkondua zen, koinata abertzalea zuen... Hau txiki da, hau Ipar Euskal Herria da! Nik ere, jendarmeria nuen osaba!”

FRANTSES SISTEMA

“Lau mila bizilagun biltzen dira pastoral batean. Eta egun hartan euskara asko entzunen da, baina bihar munean gauzak berriro frantses sisteman sartuak izanen dira. Ez gara frantses sistematik atereak. Euskaldun izatearen harro direnak ere, beren iritzian euskara bizia-razi eta indartu nahi dutenak ere, une batean, ez dira urrunago joaten, frantses sistemaren barruan gertatzen dira. Eta frantses sistemaren barruan, goiz edo berant, euskara desagerraraziko da”.

ETA-REN IKUSPEGIAREN KONTRAKOA

“Ni IKn sartu nintzen ordurako, erabateko haustura egina zuen ETArekin. IK-k bere ekintzak bere kabuz egin zituelarik, eta berak sinatuta, eta bere argudiaketarekin, ETak erran zuen: ‘Batere ez dakit gazte hauek zer ari diren!’. Ni erabat ETA-ren kontrakoa nintzen, eta naiz. Ez ETaren borrokaren kontrakoa, hala ere, ETaren jokamoldearen kontrakoa, ETaren ikuspegi totalitarioaren kontrakoa baizik”.

frantsestea. Hori ez da elebitasuna, hori diglosia da. Nahastu egiten dute, nahitara, Euskal Elkargoan eta Euskararen Erakunde Publikoan. Elebitasuna da bi hizkuntzak guztiz eskubide eta baliabide berdin-berdinak izatea, gehi atzerago den hizkuntzaren hobesteko laguntzea. Hori da elebitasuna.

30 urteko borrokak, politikoak-eta, ekarri duena.

Eta balio du borrokak ekarri duen horrek, baina jakitez horrek badituela bere mugak. Urrats txikiak egiten dira politikan. Onartzen dut, gaur egun gehiengo politikoa ez dela abertzalea. Hori da egoera soziopolitikoa eta ez da egiten ahal hori ez balitz bezala, bistan dena. Politikak errespetua ekarri dit, ikasten da besterekila lanean. Garai batean baziren bi mundu, elkarrekin ibiltzen ez zirenak: hautetsi ziren abertzaleak sartu direlarik hautetsi frantses sistemaren aldekoekin, gauza batzuk aldatu dira. Bata bestearen ikusmoldeetik ikasi eta onartu dute batzuek eta besteek. Eta, demagun, Zuberoan, lan egin dugu euskararen bultzatzeko, eta ez baginen hor izan, ez zen eginga izan.

Nola ikusten dituzu Zuberoatik Euskal Herriaren beste bi administrazio

entitateak, EAE eta Nafarroa?

Eusko Alderdi Jeltzaleak EAEn daraman kudeantza ez dut batere txarra antzematzen, salbu gauza batean: ez dut ulertzen zergatik, eta alderdi abertzaleek dutelarik gehiengoa, nolaz ez duten printzipioz ezartzen autodeterminazio eskubidea. Hori ezin da saihestu. Hori erraten ez duteno, besteek autonomista deituko dituzte. Hori seguru! Autodeterminazio eskubidea ofizialki ez aldarrikatzea akats handia da.

EAEn hitzean eta hortzean harturik dabilta beti "autogobernua".

Ez da batere gauza bera. Autogobernuak erran nahi du estatu-nazioa ez duzula auzitan jartzen. Autogobernuak ez du gaur egungo Europa eredua auzitan ezartzen. Autodeterminazioak bai. Autodeterminazioak erraten du beste Europa bat behar dela, Europa federala, autodeterminazio eskubidea onartuko duena; eskatzen duten herriei, erran nahi dut, eta badakit batzuek ez dutela eskatuko.

Zure iduriko, euskaraz ala elebitan izan behar du dena delako Euskal Herriak, dela autogobernatu, autodeterminatu nahiz independenteak?

Onartezina da tolerantziaren izenean euskararen kontra egitea. Tolerantzia da, ez bakarrik euskarari eskubideak aitortzea, baina arabera baliabideak ematea. Gaur egun, iduri du "tolerantziaren izenean", ez dugula deus galdegin behar. Eta ber bidetik ari gara Ipar Euskal Herrian. Intolerantzia da erratea: "Mezu hauek euskaraz ziren, eta euskaldun munduari zuzenduak ziren, eta nahi bazenute mundu horretan sartu, euskaraz ikasi behar duzue!". Eta kito!

Baina behin ere ez baita "Eta kito!".

Badakit ontsa nik hori. "Ez, ez, elebitasuna!", diote, baina faltsua da hori. Diglosia nahi dute, betikoz! Gaur egun, euskararen mende ziren eremuak ere diglosiaren mende jartzen ari dira, eta onartezina da. Eta pastoraletan ere ageri da hori. Bide horretan aitzina, egunen batean, pastoral batean ariko diren hamarretarik zortzi erdalduak izanen dira. Pastoralak euskaraz emanen dute, ikasiko baitituzte bertsetak eta kantuak, baina ez da besterik izanen. Makurtzen ari gara euskaraz ez dakitenen egokitzera. Eta ez da hori bidea. Euskal Herri bat izan behar bada, euskalduna behar du izan. Ez baldin bada Euskal Herri euskalduna, beste izen bat eman diezaiozun. ●



ANTOLATZAILEA

elhuyar
Zientzia

BABESLEAK



KOLABORATZAILEAK



Lanak aurkezteko epea LUZATUTA azaroaren 13ra arte



Natura besarkatu



DAVID BOU
LA DIRECTA-KO KAZETARIA

Pereren bizitza erabat aldatu zen duela hamahiru urte. Goizetik gauera inbertsio txar batzuek kalean utzi zuten, bere ondasun material guztiak galduta, hiru urte pasa bizitoki izan zuen autoa salbu. Orduan erabaki zuen arrantzaleen aterpe txiki batera bizitzera joatea, Costa Bravako hondartza eder batean, ingurune natural babestu betean.

Aterpe edo “barraka” hori Estatuko Portuak erakundearen jabetzakoa da eta udalak kudeatzen du. Mendeak direla, udalari giltza eskatuta bizilagunek herri bazkariak egiten dituzte asteburu eta jaiegunetan. Hori guztia ez da aldatu Pereren presentziarekin, ez baitu baimen formalik behin betiko bizitzeko, baina bere funtzio altruista bermatzen duen kapital sozial aberatsa pilatu du: ingurunea giza arrastotik libre mantentzea.

Azken udetan bisitariak modu espontzialerik gabe diratzen direla paradisu txiki horretan, lehenago herritar gehienentzat ia ezezaguna zena. Garraio bideen eta komunikabideen hobetzea, turismoaren hedatzea erosteko ahalmen txikiagoa duten gizarte-mailetara eta ohiko oporlekuen kolapsoa dira faktore nagusiak, besteak beste.

Hiru hilabetez hirian konfinatuta egon ondoren, aire garbia arnastea behar bihurtu zaio jende askori. Espainiako Estatutik kanpo bidaiatzeko zailtasunek eta pandemiagatik ezarritako

**Polemika piztu da:
zenbateraino arautu
edo mugatu beharko
genituzke gure
harribitxi naturaletarako
sarbideak?**

segurtasun distantziak eta murrizketek egin dute gainerakoa. Inguruko naturaguneak helmuga posiblerik onena ziren, horregatik izan dituzte inoiz baino bisitari gehiago, eta horrek eztabaida sakona azaleratu du.

Pica d’Estats gailurreko irudiak –Kataluniako tontor enblematikoa Ekialdeko Pirinioetan–, argazki bat ateratzeko txandaren zain dagoen txangozale ilara luzearekin, naturaren masifikazioarekiko kezka eragin dute, baita inguruko lakuetan jende asko bainatu izanak eta gailurrera bidean utzitako zabor erre-kastoak ere. Polemika piztu da: zenbateraino arautu edo mugatu beharko genituzke gure harribitxi naturaletarako sarbideak?

Ingurumen ondorioak ugariak dira, eta ekosistemak suntsitzen laguntzen dute: faunak ihes egiten du gizakiak eragiten duen estresaren ondorioz, edo gure urratsek higadura sortzen dute. Kalte horiek arintzeko, zenbait tokitan, sarrera ordainketa sinbolikoa eta edu-

kiera kuotak ezarri dituzte ingurunea lehengoratzeko laguntzeko. Gaztelugatzen ere hala gertatu da eta hori bezalako adibideek erakutsiko digute neurri horiek nahikoa diren ala ez.

Mundu guztiak du naturaz gozatzeko eskubidea, baina horrek batzuetan prestakuntza edo laguntza eskatzen du. Generalitateko suhiltzaileen datuen arabera, mendi erreskateak % 20 hazi dira Katalunian konfinamenduaren ostean, gertatzen ari denaren erakusgarri: kontzientzia eta ingurumen hezkuntza ga-bezia orokorra da, gu geu eta ingurunea arriskuan jarritz.

Pere itsasoari so zegoen patxadatsu, abuztu betean, galdetu nionean ea udan ehunka pertsona egunero ikusteak ez ote zuen nekutzen, bakardadera ohituta egonik. “Gehien gogaitzen nauena da hogeita hamar urtez urtero etortzen direnak kexu egotea, hemen egoteko gainerakoek baino eskubide gehiago balute bezala”.

Harrituta, bere azken gogoeta entzun nuen: “Zenbat eta jende gehiagok ezagutu eta maitatu leku hau, orduan eta zailagoa izango dute suntsitu nahi dutenek”. Ingurunea areago estimatzen irakatsi zidan Pere egun hartan, eta errespetu horren igorle izatea besterik ez nuke nahi, hura gozatzeko duen ororen arrastoa ezabatzeko olatu bat nahikoa izan dadin. Orain, zuei dagokizue ezagutzea. ●

Louise Bourgeois eta beste ehule batzuk



MAIALEN BERASATEGI CATALÁN
ITZULTZAILEA



PAULA ESTÉVEZ

Louise Bourgeoisek ez omen zion herra berezirik amari, nahiz eta batek kontrakoa pentsa lezakeen Guggenheim ondoko haren armiarma erraldoi durduzagarriaren azpitik pasatu eta eskulturaren izena *Ama* dela jakiten badu. Armiarma, aramua, marasma...: etimologiak gorabehera, ezin uka euskarak berak hoskide samar dituela amak eta armiarmaak. Eta ezin uka, aldi berean, zer sentipen piztu ohi dioten animalia hankatsu horiek jendea-ri, araknologo edo zomorrozale ez direnei behintzat: izua, nazka. Aj, aj! Ut, ut! Bourgeoisek esplikazioak eman behar izaten zituen beti: “Amari egindako oda bat dira armiarma horiek. Tapizgilea zen bera, eta, armiarmaak bezala, ehulea ere bai. Babestu egiten ninduen, eta lagunik minena nuen”, azaldu zuen behin *The Guardian*-en. Ehule baten alaba, artista bihurturik, amari ohoreka.

XX. mendeko Louise Bourgeois hori baino puskaz ezezagunagoa da haren izenkide bat, beste Louise Bourgeois bat, aspaldixko bizi izan zena, XVI-XVII. mendeetan, eta kasualitatez (edo ez) ehungintzarekin eta amatasunarekin lotura estua izan zuena, jostun aritu baitzen zenbait ezurtetan, eta “obstetriziako lehenbiziko

emakume profesional handia” bihurtu baitzen gerora, Adrienne Richek *Emakumeagandik jaiok* liburuan dioenez. Emagin aritzeaz gainera, ikasleak langintza horretarako trebatzen ere jardun zuen Bourgeoisek, eta espezialitate hari buruzko zenbait liburu ondu zituen grianaz. Gizonezkoen medikuntza, ordurako, bereganatzen hasita zegoen mendetik mende emakumeen esku egondako praktika eta jakintza hura, eta emagintza hasita zegoen galtzen gizatasuna, hurkotasuna: erdi-hurren zegoen andrearengana heldu, medikuari berari komeni zitzaien posturan erdiarazi, ondorio fisiko eta psikologikoetan asko pentsatu gabe edozein tresna eta metodo erabili, eta agur, hor konpon. Jakina, zenbat eta pobreagoa emakumea, orduan eta zabarra goa eta ezaxolagoa jarduna. Emagintza aberasbide huts bihurtu zuenik ere izan zen (horren adibide dira chamberlendarrak, forzepsaren asmatzaileak, behar ez zenean ere trastea erabiltzen tematzen zirenak eta behar zuenari patentea eman nahi izan ez ziotenak). Bourgeoisek, joera hari beha, erabaki zuen ofiziokoei jardunbide egoki batzuk ematea; besteak beste: “Engaia zaitez ikastera, zure azken egunera arte; umiltasun handia behar da

horretarako [...] Ez sekula ausartu irakatsi dizuten sendabide bat erabiltzen, ez pobreekin eta ez aberatsekin, baldin eta seguru ez bazaude onerako dela eta ez dakarrela kalterik [...] ez ezkutatu medikuei eta beste emaginei zer sendagai erabiltzen dituzun [...]”.

Eta, halaz guztiz, gure garaiko Louise Bourgeois honi eskultore-bidea malkartu zioten bezala emakume jaio izate hutsagatik, duela hiru-lau mendeko Louise Bourgeois hari ere ezin konta ahal oztoparri ipini zizkioten ez zezan irakatsi zekien guztia (eta ez zen gutxi). Bera, ordea, jakintza-sare bat ehuntzen tematu: profesionaltasunagatik ez ezik ahizpatasunagatik ere bai, edo hala segitzen da haren hitzetatik behintzat. Badirudi kontra egin nahi ziola, nolabait, mende batzuk geroago Charlotte Perkins Gilman-ek idatzitako *Herland* nobela utopikoan gizon protagonistetako batek botatzen duen ustekizun maiztuari: “Hauek denak emakumeak baino ez dira, eta amak, gainera; eta amatasuna dagoen lekuan ez duzu ahizpatasunik aurkituko”. Historia josia ez balego bezala anaidiaren saretik ihes egin nahi eta armiarמן arteziaz ahizpen sarea ehuntzen ibili diren ama-alabaz. ●

Durangoko kanpaiak



ARKAITZ ZARRAGA
AZURMENDI
EUSKARA IRAKASLEA

Hiru hilean behin ematen dut iritzia hemen. Gai librean baina karakterak mugatuta.

Askok uste du nire gaiak ere mugatuta daudela; euskara-irakaslea izateak eta inguru jakin batean jaio eta mugitu izanak mugatzen nautela, *mugimendukoa* ez banaiz, *meneillokoa* behintzat banaizela, alegia. Bada, ez! Nik ere badut iritzirik eguneroko arazo arrunten inguruan. Eta hortik artikulu hau gai horietako bati eskaintzea, Durangoko kanpaiei hain zuzen ere.

Egia da sarritan euskara izaten dela nire gaia: euskararen transmisioa, euskaltzaleak, euskararen baliabideak eta horien gabeziak... Baita presoak ere. Sarritan joaten naiz lagunak bisitatzerara, eta horretan ere ugariak dira hari-muturrak: dispertsioa, eskubide-urraketak, etxeratzeko estrategiak...

Oraingoan ere, badaitort, zalantzak izan ditut. Eztabaidak izan ditut azken aldian euskararen kalitate edo kalitate ezak hainbat euskaltzaleri sortzen dien egonezinaren inguruan, baina ez du *pena merezi* eztabaida hori hauspotzeak. Euskaltegien munduak ere sortu dit idazteko grinarik, izan ere, hezkuntzakoak txarto badaude, gu.... Baina, egiari zor, inor gutxiri interesatzen zaio gaia.

Presoen gaiarekin lotuta, Lanemezannen egindako bisitak barneak mu-

gitu dizkit: lurgirekin aurrez aurre eta kristalik gabe sei ordu, beste preso batzuekin kafea hartu eta besarkatu... Espainiako kristal atzeko 40 minutuetara ohituta gaudenoi, sinesgaitza egiten zaizkigu Frantziako baldintzak. Baina presoena ere ez da gai xamurra azken boladan, eta oraingoan gai hori ere ez hartzea pentsatu dut.

Esan bezala, benetako ezinegona sortzen didate Durangoko kanpaiek. Badakit! Ez naiz durangar petoa, eta baten batek horretan ez sartzeko esan dit, baina agian horregatik...

Izan ere, zazpiak laurden gutxitan S. Francisco komentukoak hasi eta Santa Ana eta Andra Marikoek jarraitzen diete, eta beste hainbatek, solasaldiak eten behar izaterainoko potentziaz gainera. Etxeetan plater baino erloju gehiago dauden garaian, ordu guztiak eta erdiak, egunekoak zein gauekoak, denak jotzen dizkigute gero eta bisitari gutxiago baina presentzia akustiko ikaragarria duten elizek. Inondik ere ez dute udalerriko zarataren ordenantza betetzen, baina hortxe darraite, dilin-dalan, dalan-dilin, ohitu ez diren herritarrak aztoratzen (beste guztiak ohituta daude). Bai, badakit hori ere kultura dela baina...

Tira, esan egin dut: Durangoko kanpaiena (ere) jasanezina da! ●

Errietak



UXUE APAOLAZA

Martxoaren zortziko feministak, umeak, oro har, eta bidaidetik gabeko atzerritarrak azkenean, ijitoak, etorkinak, gazteak, okupak, baita Madrilgo zenbait auzotako biztanleak ere... Horiek guztiak izan gara koronabirusa hedatzearen errudunak.

Desastrea gara, gure agintariak errieta ere egin behar izan digute, Murgak, Urkulluk... eta arrazoi izango dute gainera, gehiegi lasaitu gara; gure bizitzak ez gaitu batere kezkatzen, ezta ingurukoena ere. Haurrak ikastolara eraman ditugu, lasai-lasai, lehen lerrora, agian gure bizitzarekiko estimu eskas hori azpimarratzen duen lantokira joateko presaren ondorioz.

Hori, uda demokrazia eta ekonomia suspertzen eman ondoren, hauteskundeetan, gure bazterrak ezagutzen, bermutak hartzen eta hondartzak, ai, hondartzak... Eta txalo jo genien horiei pitzatuta baleude bezala begiratzen diegu, ez baitirudite lehen baino lasaiago, eta kontu berarekin beti, baliabideak, kontratazioak...

Vallecas aldean uste dut agertu dela bizitzarekiko atxikimendu sendoagoko jendea; ez diete ondo ulertu, antza. Gazte arduragabeak zirelakoan agian... horiei errietaz gain kolpe zentzagarriren bat ere eman baitiete. Egia da, gure bizitzak gehiago estimatuko bagenitu, gure agintariak ez leudeke dauden lekuan. ●

Hiria ziri



IÑAKI MURUA
BERTSOLARIA

Ohituta gauzkate irria ezpainetan loratzen: pailazoak ikuste hutsarekin, gure barruko haurra ari da bereak eta bi egiten! Baina, hain mai-teak ditugun lagun horiek ere, azken bolaradan, uxatu dizkigute inguruotatik; ez omen zaigu komeni harremanak aise, samur, ugari izatea... murriztea, isolatzea eta bakartzea, geure osasunarekiko zein besteekiko errespetuz. Duela gutxi arte intsumisioa honi eta hari aldarrikatzen ari zirenek ere hala diote, ezkerreko zein... ezkerrekoek.

Noski, beldurrak ez du barkatzen. Bakartu ere egiten du. Corona Dirusaz egin zen lehenengo prentsaurrekoan, traje kakiak eta beste koloretako izar-dunak ikustean pentsatu nuen, nolaz? Osasunaz ere ba al dakite? Gai al dira adinekoak zaintzeko, adibidez? Aibala, eta geroxeago traje beltzak eta gorriak orrialde ia osoko iragarkian, gure etxe-ko egunkarian ere, lehen prentsaurreko hartako argazkiaren pareko kopia izan nahirik edo... bakoitzak bere indarra azalduz; arrazoiak baino indarrak gehiago balio? Beldurra da botereak autori-

Murriztea, isolatzea
eta bakartzea, geure
osasunarekiko zein
besteekiko errespetuz.
Duela gutxi arte intsumisioa
honi eta hari aldarrikatzen
ari zirenek ere hala
diote, ezkerreko zein...
ezkerrekoek

taterik ez daukanean duen irtenbidea eta, konfinatu hitza, militarren ahotan entzunda ikasi dut ez Osakidetzan.

Bestalde, hiriak ziri dira bizidunontzat eta zaila du erremedioa. Zergatik du, Hego Euskal Herrian, Gipuzkoak biztanleen proportzioan kutsatu gutxien? Eta zergatik jarri dute EAEn hainbeste isun? Akaso lehen aipatu bi datuok lotu behar al dira? Gipuzkoa herri txikiz, auzoz, baserri... jantzia dago, horrek ba ote du

zerikusirik? Gipuzkoarrak ote harremanetan antigoalekoenak, uzkurrenak? Hiri-tako bizilekuak, balkoi, lorategi, baratz gabeak jasangarriak /jasanezinak ote? Jasan hitza bera bizitzari buruz, ezin dut jasan.

Azkenik, eliza ere aldatu da! Hileta batera eta herritar Valentin Larrearen obrekin osaturiko kontzertura joan naiz herriko elizara: hidrogel alkoholikoa eskuak garbitzeko. Ur bedeinkatu ontziak hutsik, "inor ez kutsatzeko asmoz eta fedez". Hara Pilatos! Etzeok garai bateko apaiza begira! Bataioko urak gure ari-ma bekatutik garbitzen zuela eta hori gabe infernuko garretara kondnaturik geundela... hezurretarainoko izua sartu zigun! Orain zer eta ur bedeinkatuaren lekuan hidrogel alkoholikoa?!

Dena ez da aldatu, ordea. Diru kontuak, ziri kontuak eta beste, lehengo errege hanka handiak inor ohartzeko ospa egin du; ezta argazkiko kakiak ere ez omen dakite ezer. Eta eskerrak ez den errepublika batera joan, monarka don-tsua, golfo inguruan omen dabil, justizia denontzat da berdina, esanaz... ●



ARABAKO BERTSO KUADRILLA ARTEKO ²⁰²⁰ A

www.bertsotzale.eus/araba



URRIAK 10

MURGIA Palatu
LARUNBATA Kirol eremuan

12:00 14-18 urte **ARTEKO**

ARABAKO ESKOLARTEKO FINALA

17:00 **3** TALDEEN **ARTEKO FINALA**

**SUMENDIOLA BETE
POTO (GASTEIZ)**



**KONDE BASKO ILUEK
(ARMAIO)**



IZENBAKIEK (ARMAIO)



Babesle nagusiak

LURRA HERRIARI DEIKA

Euskal Herriko agroekologia mugimenduak eta ARGIAk kamiseta organikoak atera dituzte elkarlanean. Aldizkari honen irakurleok barneratua dugu bertakoa, garaikoa eta ahal dela ekologikoa jan behar dela, baina eragile anitz hauek entzunda, konturatzen gara beste galdera hau egin behar dugula elikagai bakoitza hautatzerakoan: nola dago egina? Horrela, jatea egunero hiru bider egiten dugun iraultza bihur dezakegu. Herri gisa burujabetza, ingurumena, osasuna eta justizia soziala indartzen ditugu hozkada bakoitzean. Eta plazeretik gainera. Bada ordua herritarrok osasuntsu elikatzeko eta jaten duguna zer den jakiteko ditugun eskubideak berreskuratzeke.

 **EITXU EIZAGIRRE KEREJETA**
 **MIKEL OLABIDE**

Uda hasierako arratsalde bero batez elkartu gara Etxarrin agroekologian ari diren eragile anitz hauekin: badira baratzea lantzen dutenak, produktu freskoak edo transformatutakoak saltzen dituztenak; badira abeltzainak; kontsumitzaileekin eta eragileekin elkartuta tokiko garapena bultzatzen duten proiektuak; udal teknikariak; elkarteetako kideak... Denak agroekologian ari direnak. "Agroekologia" hitza agian ez zaio ezaguna egingo ARGIAko irakurleari, baina mamia bai: komunikabide hau jorratzen ari den balio berak ari dira lantzen laborantzatik, eguneroko praktikan.

Konfinamenduak elikaduran ekarritako mugimenduak atera dituzte berehala mahai-gainera. Honela deskribatu du Leitzako nekazaria eta Etxalde baserritar mugimenduko kide den Goizone Sestorainek bere bailaran sumatu duena: "Lehen ere deus kuestionatzen



ez zuenak, jarraitzen du deus ere kuestionatu gabe. Baina bada jende multzo kozkor bat, alderantziz gertatu zaiona: supermerkatuekin deskonfiantza erabatekoa hartu du eta baserriko produktu bila dabil". Josebe Blanco artzaina da eta EHKOLEktiboko kidea eta konfinamendu garaian Espainiako Gobernuak hartutako bi erabaki politiko azpimarratu ditu: "Bata, baratzeetara joateko debeku hura. Eta bestea, azoken itxiera. Hor, herritar askok planto egin zuen, bizitzara lotzen gaituena ukitu zutelako debekuek: lurra. Janaria lantzea ukatu ziguten, orain arnasa eta elkartzea bezala!". Baratzezaina eta Biolur elkarteko kide den Aitzol Iturbek jarraitu dio hariari: "Bizitzeko benetan behar ditugun gauzak ukatu

dizkigute, eta txorakeriak ez". Blanco: "Mozkortzera joateko aukera baduzu, libre zara!". Baina abeltzaina eta Bizilurreko kide den Bego Goikoetxeak azaldu du berari zerk ematen dion benetako askatasuna: "Niri ekoizteak askatasun bat ematen dit. Ez dut ulertzen herri aske bat, bere beharrak ase ezin dituen, bere elikagaiak ekoizti ezin dituen. Transgenikoekin, hori guztia pribatizatzen ari dira eta gure lanean gero eta dependienteago gara: kimikoen dependiente, hazien dependiente, makinaria dependiente... osasunarekin horren falta nabari dut orain: ni izatea nire osasunaren burujabe. Elikagaiak ekoizten badakit, baina osasunean ez, geneukan jakintza kendu digute eta pribatizatu, eta egun medi-

kuarengana ez bazara joaten, ezin zara zure osasunaren burujabe izan". Josetxo Lukas baratzezaina da eta Baserria XXIeko kidea eta gogoratu du mugak itxi zirenean agerian geratu zela elikadura burujabetzaren garrantzia, "baina komunikabide ia denek elikadura eredu bakarrari egiten diote jarraipena". Blanco komunikabideen egun haietako mezua gogoratu du: "Lasai, apalategiak bete egingo dira eta kamioilariak aukera dute etortzeko! Herritar batzuk ahotsa altxatzen hasi zirenean, komunikabideek orduan esan zuten: 'Kontxo, bertan ere janaria badago! ez dugu trailerrrik behar!'". Artzaina eta Biolurreko kidea den Lur Pagoagak salatu du EAEn iragan diren hauteskundeetan alderdi politikoek ez

ZUTIK, EZKERRETIK ESKUINERA: Gotzone Sestorain Leitzako nekazaria eta Etxalde baserri mugimendua. Marijo Imaz fruitu ekoizlea eta Urduñako Udaleko teknikaria. Lorentxo Sarrotea artzaina, Baztango Zaporeak. Jon Murgiondo artzaina, Baserria XXI. Koldo Rey Arabako Bionekazaritza elkarteko koordinatzailea. Bego Goikoetxea abeltzaina, Bizilur. Nerea Biana Sakanako Garapen Agentziako elikadura teknikaria. **MAKURTUTA, EZKERRETIK ESKUINERA:** Xabi Zendegi Arabako Ekoizle Ekologikoen Elkartea. Josetxo Lukas baratzezaina, Baserria XXI. Aitzol Iturbe baratzezaina, Biolur. Joxan Jaka Belardi Sakanako ekoizleen taldea. Josebe Blanco artzaina, EHKOLEktiboa.





diotela elikadura burujabetzari duen garrantzirik eman: "Etxeetara bidalitako esku-orrietan alderdi bakarrak aipatu du nekazaritza, Voxek!".

ARGIA kazetaritzaren bidez saiatzen da elikadura burujabetza bultzatzen, eta konfinamendu garaian zerbait gehiago egin nahirik, agroekologia mugimendua-rekin harremanetan jarri zen, elkarrekin kamisetak ateratzeko asmoz. %100 kotoi organikoz eginak dira, ukimenera oso goxoak, Maitane Gartzandiaren diseinua daramate eta kolore oso bereziak dituzte, baina mezua da bere balio nagusia: Lurra defendatzeko eta zaintzeko herriari dei egitea, agroekologia mugimendua bultzatuz.

“Ez dut ulertzen herri aske bat, bere elikagaiak ekoitzi ezin dituenena”

Bego Goikoetxea

BETIKO NEKAZARITZA

Goikoetxeak dio nekazaria dela "eta kito", amorratzen duela "agroekologiko" hitza erabili beharrak: "Zergatik ez zaie besteei industrial deitzen? Gu saiatzen gara jakinduria bat mantentzen, praktikatzen eta hobetzen. Beraiek dira ekoiz-

teko modua aldatu dutenak eta beraz, beste izen bat behar dutenak". Blanco: "Gainera euren burua ez dute industrial gisa izendatzen, 'konbentzional' baizik!". Goikoetxea: "Betikoa balitz bezala! Betikoa gurea da!".

Mugimendu agroekologikoko Ipar Euskal Herriko kideek ez dute hitzordu honetara etortzerik izan. Baina Sestorainek oso gogoan du hauen ekarpena: "Iparraldean oso ongi definitzen dute, 'laborantza herrikoia'. Betidanik egon diren nekazari eta abeltzainen jakintza horri eusten eta beste jakintza batzuekin osatzen saiatzen gara. Agroekologia ikasketa prozesu bat baita, inoiz amaitzen ez dena".

Marijo Imaz ekoizle izateaz gain Urduñako udal teknikaria da, eta agroekologia bere lanerako oso baliagarri zaion marko teoriko bat dela azaldu du: "Agroekologiak aukera eman digu ikuspegia zabaltzeko eta sistema modu integralean ulertzeko: agroekologiaren parte da ekoizpena, elikadura eredu bat, eredu energetiko bat... marko horrek ulertzen du izaki bizidun guztiok ekosistemaren parte garela eta limiteak jartzen ditu, koherentzia ematen dio trantsizioari. Beraz, marko teoriko horrek balio digu ikusteko nolako proiektuak eta nolako garapena nahi ditugun gure herriarentzat. Norabidea elikadura burujabetza eta beste burujabetza batzuk (energia, etxebizitza, zaintza...) dira, horrantz jo nahi dugu". Arabako Ekoizle Ekologikoen Elkartearen kide den Xabi Zendegik zehaztu du agroekologiak hiru esparru batzen dituela, "ingurugiroa, elikadura eta osasuna

eta hirugarrenik, gizartea". Beti aurrerago egin daitekeen bide bat dela nabarmendu du, "beti edukiko baituzu beste esparruren bat aurrerago joateko". Koldo Rey Bioaraba elkartearen koordinatzailea da eta berak azaldu du zein erramintaren bidez ebaluatzen duen nekazariak bere burua agroekologian: "Margarita moduko bat erabiltzen dugu, hainbat eremu ebaluatzeko balio duena, eta bakoitzak ikusten du non dagoen eremu bakoitzean. Horrela, bakoitzak une horretako bere argazkia egin, eta ikus dezake dituen baliabideekin zer eremu hobetu dezakeen. Proiektu bakoitzak ikusi behar du zeri ematen dion garrantzia. Horregatik, burujabe izatea beharrezko da, noruntz aldatu erabaki ahal izateko". Iturbek azaldu du hain justu agroekologiak burujabetzetarantz eramaten dituela nekazariak: "Prozesu bat da, nekazaria gero eta autonomoago, burujabeago egiten duena. Gero eta petrolio gutxiago, gero eta insumo edo ekoizpenerako kanpotik sartzen ditugun produktu gutxiago, gero eta hondakin gutxiago, gero eta inpaktu hobea ingurunean, gero eta lur gutxiagorekin jende gehiago mantentzea... gero eta, gero eta, gero eta...". Lorentxo Sarraitea artzaina da eta Baztango Zaporeak elkartearen kidea, eta abiapuntura itzuli du gaia: "Horiek guztiak egiten ziren lehenago, nekazari izenarekin!". Iturbe: "Ba bai. Baina agroekologia hitza atera zuen Via Campesina mugimendua, ikusi zuelako 'nekazaritza ekologikoa' ren terminoa jada manipulatzeko ari zirela. Ea beste hau ez duten lapurtzen! Lehengora bueltako prozesuari ipintzen zaion izena da".

AGROINDUSTRIAREN MEHATXUAREN AURREAN

Blancok azaldu du betiko nekazariak desagertzeko mehatxuaren aurrean sortu zela Euskal Herri osoko ekoizleak eta herritarrak biltzen dituen EHKolektiboa: "Duela 12 bat urte Iparraldeko baserriar askok, Hegoaldera deia egin zuten kezka hau zabaltzeko: 'Agroindustriak jan egingo gaitu! Nekazari ekologiko txikiak kondenuatuak gara desagertzera'. EHKolektiboan, baserriar eta herritarrak hasi ziren agroekologiak bere barne hartu beharko lituzkeen irizpide edo kontzeptu batzuk finkatzen: ekologikoa izan behar zuela, gertukoa, baserriarren eta herritarren autonomia bermatu behar zuen... Gainera, pertsonen neurriko baserriak eta jarduerak behar ziren izan, eta ez makinen neurrikoak, horrek ere gure autonomian galera eta petrolioarekiko menpekotasuna dakarrelako. Hastapen horretan ikusi genuen nekazaritzak lotura behar zuela herriarekin. Herria aldatzeko eta trinkotzeko gaitasuna izan behar zuela, ezin zela izan herritik aparte zegoen jarduerara. Genero ikuspegia ere kontuan hartzen dugu, eta behar bada baratzegintzan gauzak ho-

betok daude, baina abeltzaintzan emakumeok aparte geratu ginen, makinak eta traktoreak sartu zirenean. Arrazakeriaren gaia, lan baldintzak... izan ere, agroekologikoa al da langile bat 12-14 orduz lanean edukitzea, 300-400 euro ordainduta? Hartzen ditugun langileek gure baldintza berak izan behar dituzte, nahiz eta gure baldintzak ez diren munduko onenak. Eta zuzeneko harremana eta gardentasuna bultzatzen ditugu: herritarrak eskubidea du zer jaten ari den jakiteko".

ELIKADURAK ELKARTZEN GAITU

Sestorainen aburuz nekazarien lehen helburua herritarrak elikagai sanos elikatzea da: "Elikagai osasuntsuak jarri behar dira erdigunean, horrek lotzen gaitu herritarrak eta baserriarrek". Blancok osasunaren ikuspegi kolektiboa landu behar dela ohartarazi du: "Bada hor kontraesan bat. Osasunarentzat ekologiko erosten duena, batzuetan bere gorputzarentzat ari da osasungarri erosten, baina ez bere herriarentzat. Helburua hain indibiduala bada, buka dezake Patagoniako sagarra janaz. Behar bada bere gorputzarentzat sanoa da, baina ez

bere herriarentzat eta munduarentzat".

Imazek ere uste du elikadura dela erdian jarri beharrekoa, horrek batzen dituelako ekoizleak eta herritarrak: "Urduñan narratiba aldaketa horrek batu gintuen ekoizleak eta herritarrak, aurretik gure artean etena zegoelako. Baserriarrek, kontsumitzaileak, komertzio txikiak... horiek denak dira tokiko ekonomiaren parte, eta elikadurak batzen gaitu guztiok. Norberak ikusten du elikadura sisteman bere tokia zein den, eta bakoitzak gure lekutik elikaduraren bidez zentzua ematen diogu sistema osoari. Alde batetik baserriarrez hitz egiteak eta bestetik kontsumitzaileez, horrek banatu egiten gaitu eta sistemak hori nahi du, banatzea, indarra galtzeko". Interes komuna azpimarratu du Sestorainek: "Agroekologiak ekoizlearen eta kontsumitzailearen interes komuna bilatzen du. Nekazaritza industrialak pentsatuta dago dirua ateratzeko, eta berdin dio nola: berdin dio lurra kutsatzea, lurrak eta baliabideak xurgatzea edo langileak esplotatzea. Hori Nafarroako Erriberan oso garbi ikusten da. Agroekologiak ez du bakarrik zaintzen nekazariak biziraun behar duela,



baita ere zaintzen du nekazari horrek egiten duenak herritarraren zerbitzura egon behar duela".

LURRA

Lukasek mahai gainera atera du zein garrantzitsua den momentu honetan lurrraren zaintza eta nekazari agroekologikoei horretan betetzen duten papera. Blancok azaldu du lurra zaintzearekin zuzenki lotuta dagoela bertako arrazak eta barietateak lantzea: "Zeren horrek ziurtatzen du zu zarela lur horietara moldatzen dena, ez duzula lurra behartuko zuk nahi duzuna lantzeko. Agroekologian dabilen nekazariak bere lurrraren ezaugarriak ezagutzen ditu, errespetatzen ditu eta horietara moldatzen da. Ez alderantziz".

Sarrateak lurrraren balioa desbideratu dela salatu du: "Lurra beti izan da janaria lortzeko: zenbat eta lur gehiago, janari gehiago... Baina orain lur horrek industriarentzako balioa galdu du, gainera jada janaria lortu daiteke lurrik gabe, eta lurra soilik erabiltzen da autopistak egiteko...". Lukasek jarri dio hitza: "Espekulatzeko". Iturbek zehaztapen hau gehitu die: "Beste nonbaiteko lurretik ateratzen da dena, e! Hemen lurrik gabe ekoizten dituzten tomate hidroponikoei ureztapen bidez sartzen dizkiete 'elikagaiak'. Bada, landareei ematen zaizkien elikagai horiek ere nonbaiteko lurretik ateratzen dira". Lukas: "Bai, baina gure lurrak espekulatzeko dira. Nekazal lurrik eman korrenak birkalifikatzen dituzte eta prozesu horretan aberasten dira". Horregatik okupazioaren aldeko aldarria egin du: "Guk okupatuta lortu genituen

gure lurrak. Hutsik zegoen Gipuzkoako Foru Aldundiaren baserri bat eta lur eremu okupatu genituen, Gaintxurizketan egin nahi zuten plataforma logistikoaren aurka egiteko. Denbora gutxi eman genuen okupazioan, lur horiek eta baserria lur funtsan sartzea proposatu zigutelako eta onartu egin genuen, lortutzat eman genuelako gure helburua, lur horiek nekazaritzarako bideratzea: 'Guk irabazten ez badugu, gutxienez beste nekazari batek irabaziko du', pentsatu genuen. Zorionez, guk irabazi genuen esleipena. Animatzen ditut herritarrak, erakunde publikoek espekulatzeko dituzten terreneak nekazaritzarako okupatzera".

SUPERMERKATUKO IKURRIÑAK

Supermerkatura joaten bagara, herritarrok batzuetan kontzientzia ariketa eginez aritzen gara ikurriñadun apalategien bila, bertan ekoiztutako jakiak hautatzeko. Baina zer dago erosketa horren atzean? Blanco: "Supermerkatuek baserriaren iruditegi osoa lapurtu dute, eta Caritasen pare jartzen dira: 'Gure baserritarrei lagundu nahi badiezu, etorri gure supermerkatu'. Eta ikurriña hori hutsik dago. Erosleak ez daki apalategi horretan dagoena nola egin den, zer eredu bultzatzen ari den... herritarrak ikurriñadun produktua erosten duenean, ustez ez du robotdun agroindustriako produktu bat erosten, ez Txinatik ekarritakoa, herritarrak guk egiten duguna erosi nahi du". Sestorain: "Horregatik, supermerkatuek guk egindako lana aprobetxatzen dute. Iruzurra da. Eta larriena da, jendea borondate onenarekin doala hori erostera".

Zendegik salatu du kontsumitzaileak nahastea estrategia zehatza dela, "ez dizan jakin zer kontsumitzen duen. Lurrik ukitu ez duten tomateak kartoizko bilgarrian emango dizkizute, itxura naturala izan dezaten. Eta Araban eginikoak direnez 0 km dira, 'natur' hitza jarriko diote... ondoan bi metroko argazki bat agertuko da, baserritar batena, bere tomatea eskuan". Marketinga edo itxura ez datorrela edukiarekin bat salatu dute denek. Baina Sarrateak ohartarazi du nekazariengan ere badagoela hori galerazteko aukera: "Ni artzaina naiz baina badiut euskal txerriak ere, eta Iparraldeko txerri ekoizleek filosofia bat zaintzen dute: beren produktua ez da egundaino supermerkatu batean salduko. Esaten dute: kalitatezko haragia erosi nahi duenak etorri beharko du denda txiki batera edo ekoizlearengana. Hori da gure bekaketa, gure produktua supermerkatuetan sartu dugu. Eta ondorioz, gure irudia ere han dago. Aski da supermerkatuko hamar produktutatik bakarra izatea baserrikoa, irudi osoa eskuratzeko. Gure produktua ezingo balute inondik inora harrapatu supermerkatuetan, aldatu egingo zen gauza".

0 km kontzeptuaren desitxuraketa ere salatu dute. Iturbe: "0 km bertakoaren sinonimo da, baina material hori nondik dator? lehengai dena kanpotik ekartzen dute, eta hemen egiten dena elikagaia sortzearen pauso bat bakarrik da". Zendegi: "Gainera 0 km batzuetan da EAE, bestetan Araba, bestetan Euskal Herria, bestetan Espainia...". Blanco: "Bildotsa atzerrian jaio da, beste leku batean hazi da, baina etiketan haren erreferentzia da non hiltzen den. Eta beti jarriko dute '*producto de España*'. Gaztatan ere, legeak dio esnearen jatorriari '*producto de España*' jarri behar diodala, baina zer España, Granadakoa al da bada? Ez, nire etxeko esnea da! Dena da jatorriari buruzko informazioa lausotzea". Lausotze horren ondorioz, Imazek azpimarratu du kontsumitzaileok produktuen ezagutza oso txikia daukagula, "eta gaur egun erosten jakiteko asko jakin behar da! Araudiaren inguruan, ekoizpen eredu ezberdinei buruz... pertsona batek Euskolabel tomateak ikusten du eta ez zaio burutik pasa ere egiten hidroponikoa izan daitekeenik! Baina beti izan da hidroponikoa e, ez da oraingo kontua! Baina iragarkietan lurra ikusten da eta tomate landarea". Reyk argi du: "Ekoizleekin harreman zuzena izanik apurtzen da ezjakintasuna. Saldu diguten mezua





da erosleok inteligenteenak garela eta erabaki guztiak hartzeko gai garela, marrazki sinpleekin informazioa jasota, baina ezjakin hutsak bihurtu gara. Umiltasun pixka bat etortzen zaigunean eta parean dugun ekoizleari entzuten hasen garenean, argitasun pixka bat sartu ahalko da zirrikitu horretatik". Zendegi: "Herriarrek elikaduraren kultura berreskuratzea beharrezko da".

SAREEI ESKER, COVID-ARI AURRE EGITEKO BASERRI INDARTSUENAK

Sestorainek azaldu du COVID-19aren itxialdian hobekien eutsi dioten baserriak izan direla kopuru txikitari zuzeneko salmenta egiten dutenak eta inguruko jendeari saltzen diotenak: "Txikiak dira benetan aukera dutenak bizirauteko, beste kozkorrak larri eta estu ibiliko dira". Lukasek gehitu du sare lana gakoa izan dela: "Igeldoko esne ekoizle bat gerturatu zitzaigun: bat-batean itxi ziren jatetxeak eta bere ohiko banatzeko guneak. 'Esnearekin zer egingo dut?', horixe zen bere galdera. Gure banaketa sare baliatu zuen eta oso eskertua zegoen eta sarean jarraitzea erabaki du, COVIDa-

rekin gertatu dena ikusita". Imaz: "Bai, sare horrek ematen dio baserri eredu honi erresilientzia. Gutxieneko dibertsifikazioa duenak, egoera berrietan aurkitu du saltzeko bere bidea. Aldiz, asko ekoizten duenak eta salmenta ia osoa toki bakarrera bideratuta duenak..."

“Baserritarrak,
kontsumitzaileak,
komertzio txikiak...
horiek denak dira
tokiko ekonomiaren
parte, eta elikadurak
batzen gaitu
guztiok”

Marijo Imaz

BI EREDUREN ARTEKO BORROKA

Blancok adierazi du beti haize- kontra ari beharraren nekea: "COVID bezalako egoera batean, ixten lehenengoak azokak dira. Denda txikiei traba ikaragarriak jartzen zaizkie. Baserritarrok banaketa egin behar badugu, isunetik libratzeko nahiko lan... aldiz, handi horiek egonkorrak dira, eta euren azpiegitura oso sustraituta dago, ez dira haize kolpe batekin erortzen, gu aldiz bai". Rey ez dago ados: "Zuek ez zarete erortzen, botatzen zaituztete! Eta haiek ez daude tinko, mantentzen dituzte! Agroindustriaren eta banaketa handiaren oinak buztinezkoak dira baina politika eta diru publikoen bidez mantentzen dituzte". Iturbe: "Sistema kapitalistaren aurka ari garen ekimen guztioi berdin gertatzen zaigu, hor aritzen gara prekarioan dena ematen, eta besteek, dirua jartzen dute jarri behar den lekuan, armadak ere badituzte... eta aurrera". Gaineratu du nekazariak ez zirela berez eredu industrialean erori, politika jakin batek bideratu zuela nekazarien gehiengoa horretara: "Hegoaldean 1990 inguruan hasi zen administrazioa eredu hori indar

19,5 €

KAMISETAK

Kamiseta erosita,
2 €-ko ekarpena egingo
diozu agroekologia
mugimenduari eta beste
hainbestekoa ARGIAri.
Hiru kolore aukeran eta bi
modelo: estua edo zabala.

Erosteko:

azoka.argia.eus
943 37 15 45



handiz bultzatzen, industrialera aldatzen ziren baserritarrei diru publikoa emanda eta burua berotuta. Batzuk bide hori jarraitu zuten, ekoizpena handituz eta etxaldeak intentsifikatuz, ohiko lan molde eta salmenta bideak utzita; beste askok jarduera utzi zuten, aldaketa hori egin nahi ez eta babesik gabe gelditu zirelako; eta berrikuntzak berrikuntza lehengo ereduaren terko jarraitu zutenek gorriak ikusita eta inongo babesik gabe eutsi diote. Orain egonkorren daudenak direla esango nuke! Beste proiektu asko gerora hasi gara, eta prekaritatea nabaria da 'hutsetik' hasitako proiektuotan".

Erakundeek gaur egun ere eredu industrialera bultzatzen jarraitzen dutela azaldu du Iturbek, diru-laguntzen irizpideen bidez: "Kantitatea saritzen da, tamaina. Inbertsioa pagatzen da eta ez lan moldea... Traktore berrien %40 ordaintzen dute, lehengoarekin moldatzen bazara, diru gutxiago jasoko duzu". Nerea Biana Sakanako Garapen Agentziako teknikaria da eta zera gehitu du: "Gainera bigarren eskuko traktorea erostea ez da diruz laguntzen, berria izan behar da". Blancok azaldu du monolaborantza bultzatzen dela eta ez dibertsifikazioa: "Gipuzkoako Aldundiaren irizpideen arabera, arditan diru-laguntza bat jasotzeko gutxienez 100 ardi eta 40 ahuntz eduki behar dituzu. Zergatik ez 60 ardi eta 10 ahuntz, eta zortzi behi, eta baratz pusketa, eta...? Enbutu sistema horrek bere lana egiten du, eta egun gertatzen gara behitegi handiak, 500-1.000 buruko artaldeak...". Imaz: "Eredu agroekologikoa ez dago barneratuta beraien irizpideetan. Aldundiek ekoizpena sustatzen dute, baina nekazariak ekoiztu,

transformatu eta komertzializatu nahi badu alferrik da, Aldundiak ekoizpena soilik hartzen du kontuan diru-laguntzarako. Beraz, asko ekoiztera bultzatzen dute eta asko ekoizten duenak ez du txikitasunak ematen duen aukerarik, transformatzeko eta komertzializatzeko. Beraz, agroekologikoan ari den askok ez du diru-laguntzarik txikiena ere jasotzen, ez delako irizpide horietan sartzen. Azkenean, bere kabuz lantxoak egiten dituzte nekazariak diru-iturriak izateko eta bere etorkizuneko proiektu horretan inbertitzeko. Askok bide horretan aurrera ateratzen dira, baina beste asko ez".

“Agroekologiak
esparruok batzen ditu:
ingurugiroa, elikadura
eta osasuna, eta
hirugarrenik, gizartea”

Xabi Zendegi

**"BASERRITAR GEHIAGO
BEHAR DUGU"**

Blancok planteatu du arazoa: "Pentsa herritar denek elikadura burujabetzara jauzi egiten dutela: ez dakit Euskal Herriko nekazari sistemak gaitasunik baduen balizko eskaera horri erantzuteko". Sarra-teak argi du: "Baserritar gehiago behar dugu". Gazteak nekazaritzan instalatzeko

arazo nagusia lurra eskuratzea da. Sestorainek azaldu du zergatik zaien zaila gazteei lurra eskuratzea: "Nafarroan lurra egon badago, baina baserritar batek jarduera uzten duenean askotan lur horiek lehendik finkatutako beste baserritar baten esku geratzen dira. Udalek eta tokiko baserritar sareek gaiari heldu beharko genioke: erne egon eta eskua sartzen hasi behar dugu horrelakorik ez dadin gertatu. Eta lan egin, batez ere, nekazaritzan sartu nahi duten gazte horiei begira".

Lukasek Lurzaindiak Iparraldean egiten duen lana azpimarratu du, "gazteak instalatzeaz eta espekulazioari aurka egiteaz arduratzen baita. Hegoaldean txikitik hasi gaitezke tokian tokiko eragileak, prest dauden udalekin". Imazek ere tokiko administrazioan jarri du indarra, "horiek direlako herritarrengandik, lurretik eta herritik hurbilen daudenak. Batzuetan udalek gauzak egin nahi dituzte, baina ez dute jakiten nola, eta ideiak behar dituzte, eta nekazariak aportatu ditzakete ideia horiek. Udalak duintasuna irabazi behar du, badirudi goiko administrazioek balio handiagoa dutela, eta kontziente izan behar du bere esku ere badela egiteko ahal handia, badituela bere errazmintak. Eta oso garrantzitsua da beste udalekin saretzea, zerotik hasi beharrean beste udalen lana ezagutzeko". Elikadurari dagokion garrantzia emateko deia egin du: "Herriak ulertu behar du elikadura interes orokorra dela". Lukasek tokian tokiko udala, nekazariak eta herritarrak batuko lituzketen agroekologia mahaiak sortzearen beharra azpimarratu du.

Bidean lagunak eta borrokak batzen doazenaren pozaz agurtu dugu elkar, kamiseta berriak soinean. ●

KATALUNIAKO ERREFERENDUMAK HIRU URTE

BESTE URRI BATZUK ETORRIKO DIRA

Independentziari buruzko erreferenduma egin eta hiru urtera, gizarteak oraindik ez ditu digeritu Kataluniaren etorkizun politikorako funtsezko gertaera horrek utzitako irakaspenak. Errepresioaren eragina gorabehera, subiranotasunaren aldeko mugimendua prestatzen ari da Espainiako Estatuarekiko hurrengo talkarako, Kataluniako Errepublikaren aldeko prozesua burutu ahal izateko.

Historiografiak erakusten digu herriek une disruptiboak bizi dituztela, zeinetan dena azkartzen den eta ustekabeko ondorioez betetako ziklo berriak irekitzen diren. Urriaren 1a une horietako bat da Kataluniarentzat, gertatu zena eta gero ez ez baita berriro berdina izan.

Egun hartan, bi milioi eta erdi katalanek baino gehiagok hautetsontzietan adierazi zuten Katalunia errepublika independente bihurtzea nahi zutela. Baina emaitzaz haratago, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak erreferenduma debekatu izanak eta poliziek eragindako indarkeriak desobedientzia zibil masiboko ariketa bihurtu zuten eguna, egungo Europa demokratikoan erreferenterik ez duena.

Horrela, bada, independentismo politikoaren enegarren mobilizaziotzat jotzen zena, azkenean, errebeldia ekintza herrikoi bihurtu zen, gizartearen erabateko gehiengoaren eskaria modu demokratikoan bideratzeko gai ez zen estatuaren aurrean.

2017ko urriaren 1ak itzulerarik gabeko inflexio-puntu bat marraztu zuen, 2010eko uztailan Espainiako Konstitu-



JAMI JULIO

zio Auzitegiak estatutuaren aurka emandako epaiaren ondorioz biztanleriaren zati handi batek sentitu zuen haustura emozionala areagotu baitzuen. Desadostasun hori ordura arte edozein jarrera subiranistatik urrun zeuden sektoreetara ere zabaldu zen, oinarritzko eskubide bat –botoa ematea– mehatxatuta ikusi zutenengana. Horren erakusgarri izan zen bi egun geroago Kataluniako kaleetan eztanda egin zuen sumindura, erreferendumaren egunean mila bat zauritu eragin zuten Poliziaren oldarraldiak salatzeke.

DUINTASUN HARRESIAK

Urriaren 1ak hainbat faktura politiko eta sozial eragin du. Berehalakoena independentzia deklarazioen ostean gertatu zen (urriaren 10ean eta 27an). Espainiako Senatuak Konstituzioaren 155. artikulua ezarpena onartu zuen, eta, horren bidez, PPren gobernuak Carles Puigdemont presidentea eta kontseilariak kargutik kenarazi zituen, Kataluniako erakundearen kontrola bere gain hartu zuen eta hauteskunde autonomikoak egin zituzten urte horretako abenduaren 21ean. Ordutik, 155.a Generalitateko departamentu guztien gainetik izan da hegan, zelatan, Damoklesen ezpataren antzera, subiranismoaren edozein ekimen baldintzatzeko.

Baina ez hori bakarrik. Erreferendumak harridura sentimendu orokorra barreiatu zuen. Espainiako Estatuak "a por ellos!" delakoaren pean eragin zauriak metabolizatzen saiatzen ari da jendarte gaur egun ere. Errege Etxeak babestutako errepresioak 2.850 pertsona baino

gehiagori eragin dio dagoeneko, hautetsien, ekintzaileen eta kultura arloko pertsona esanguratsuen artean.

Faktura horiek jardura parlamentarioa oztopatu eta subiranismoa nabarmen desorientarazi badute ere, urriaren 1ak beste funtsezko elementu bat ere argiztatu du, eta hori kontuan izan gabe nekez azal daiteke erreferenduma bera egin izana: gizarte zibilaren gaitasuna bere burua antolatzeke eta alderdiak erabakitzeke eskubidearekin konprometitzera bultzatzeko.

Ahalduntze kolektibo hori gabe ezin da ulertu 2017ko erreferenduma. Jatorria Arenys de Muntako Udalak 2008ko irailaren 9an herritarren bultzadari esker antolatu zuen independentziari buruzko kontsultan izan zuen. Haren ostean beste 500 bat gehiago antolatu ziren hainbat herritan. Kontsulta horiek herritarren eta erakundearen arteko konplizitate sare bat aktibatu zuten, eta autodeterminazioa bilakatu zuten gatazkak desblokeatzeko eta herriaren nahia-ri balioa emateko giltzarri.

Hortik aurrera, gizarte zibilaren eraginak Katalunia erreferendum bat egitera bultzatu zuen. Herrialdearen etorkizun politikoa erabakitzeaz gain, herritarren oinarritzko eskubideen defentsa argia ere izan zen.

Ez da harritzekoa urriaren 1a erretinan geratu izana, bestelako iritzi eta jatorri politikoa duten pertsonen bat egiten zutelako. Komunean akuilu bera zuten: ezin direla erabakiak utzi oinarritzko askatasunak ukatzen dituen estatu baten esku, Nazio Batuek eta giza eskubideen alde borrokatzen diren beste

mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA

**EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI**

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

erakunde batzuek Espainiako Estatuari gogorarazi dioten bezalaxe.

Herritar ahaldunduen eta botere demofobikoaren arteko talka hori Espainiako Poliziaren eta Guardia Zibilaren kargetan islatuta gertatu zen mundu guztiaren begietara, baita udazkeneko igande hartan hauteslekuetara hurbildu zen jendetzaren harrotasun-sentimendua ere.

ERREIBINDIKATZEKO MODUKO ONDAREA

"Urriaren 1ak hazia landatu zuen, egunen batean loratuko dena". Horrela laburbildu zuen instituzioetako arduradun batek erreferendumak utzitako ondarea. Eta, egia esan, subkontziente kolektiboan iltzatuta geratu da askatasuna lortzeko irrikaz dagoen herri baten existentzia, pare-parean duena hezur-rretaraino usteldutako erregimen bat, gehiengoarentzat inolako proiektu inklusiborik eskaintzen ez duena.

Aldi berean, herritarren bizkarrean bada beste errealtate gordinago bat: Espainiako Estatuak errezeta bakar gisa aplikatzen duen errepresioa. Errepresio horretan, sistema judizialean gotortua dagoen eskuin neofrankistak ariete lana egiten du "independentismoaren aurka-ko kausa orokorrean".

Baina, aldi berean, urriaren 1ak ahalbidetu zuen Erreferendumaren Defentsarako Batzordeetan (CDR) elkartu zen jende kopurua ikustea. Talde horiek, eskolen irekiera bermatzeaz gain, bozketa ahalik eta normaltasun handienarekin egiteko asmoz egin zuten lan. Egun horietan erakutsitako kemenaren lekukoa Errepublikaren Defentsarako Batzordeek hartu dute.

CDRen eskutik, urriaren 1eko ildo bizirik mantentzen da, auzo eta herri askotan mugarri historiko hura aldarrikatzen jarraitzen duen gihar soziala agerian utziz. Gertakari hura, protagonistetako askorentzat, ezin da souvenir iraultzaile gisa geratu, ezta izendegian harri bihurturik ere.

Sektore horientzat, gizarteak bere buruari proposatutako erronkak lortzeko daukan gaitasuna gogorarazteko balio behar du. Horrela zioen 1980ko hamarkadako independentismo apurtzailearen ikur Antoni Massagué bere idazkietako batean: *"Per vèncer cal anar-hi, anar-hi i anar-hi"* (garaitzeko joan egin behar da, joan eta joan). Hori lortzeko erabakitasuna baino ez da behar. ●



2018ko urriaren 1ean, erreferendumaren urteurrena, Bartzelonan. VICTOR SERRI / LA DIRECTA

HAUTETSONTZIEN BOTEREA, KALEAREN INDARRA

Urriaren 1eko hirugarren urteurrenak bat egiten du Procés-arekin lotutako hainbat epai-ekarekin. Quim Torra presidentearen kargugabetzeaz gain, azken asteetan Tamara Carrasco ekintzailea, Jordi Pessarrodona zinegotzia eta erreferendumaren zenbaketa kudeatzeko sortu zen Hauteskunde Sindikatuko kideak izan dira auzitegietan.

Horrek guztiak agenda mediatikoa bereganatu du, baina ez du ezkutatu urriaren 1eko kapital politikoaren inguruko eztabaida, ezta hautetsontzien agindua betetzea ahalbidetu behar duen estrategiari buruzkoa ere. Emaiz horiek baliozkotzat jotzeko, alderdi gehienek eskatzen dute hurrengo hauteskundeetan independentismoak bo-
toen % 50eko kopuru magikoa gainditzea, Errepublikaren aldeko gehiengo soziala dagoela berretsiko luke horrek.

Hala ere, antolakundeek eta CDRek uste dute independentziaren aldeko hemiziklo bat izatea ez dela nahikoa. Uste dute gihar parlamentario horrek ezinbesteko dituela etengabeko mobilizazioa eta herritarren eguneroko beharrak asetzeari begirako politikak.

Ikuspegi hori eduki eta gizartearen eta alderdien arteko elkarlana sustatu ezean, ziur dira ezinezkoa izango dela estatuak jarritako harrisia gainditzea. 2017ko urriaren 1ean adierazitako nahia gauzatzeko eragile guztien artean estrategia partekatze beharraz, hala zioen, sendo eta irmo, CDRetako ordezkari batek: "Horrek kalea aktibatzea eta desobedientzia zibileko ekintza berriak eskatzen ditu. Horrela bakarrik eraman ahal izango dugu herri hau askatasunera".



Ardura duten erakunde askok hizkuntza folkloretzat dute”

ALCIDES MEIRINHOS
MIRANDESAREN ALDEKO ERAGILEA

Udako egun eguzkitsu eta bero bat. Euskaldun bi eta galiziar bat Portugalgo Miranda do Douro udalerriaren alde zaharreko kaleetan bueltaka: katedrala, estatuak, museo etnografikoa, argazkiak. Azkenik, gure helmugara iritsi gara, mirandesa hizkuntzaren etxera. Bertan dugu zain Alcides Meirinhos, mirandesa hizkuntzaren aldeko aktibista.

 **TXERRA RODRIGUEZ**

Mirandesa Terra de Mirandan (Mirandako Lurraldea) hitz egiten da. Espainiako Estatuarekin Portugalgo mugan dagoen lurralde historikoa da. Mirandesa astur-leonesaren aldaera da. 27 herri-tan hitz egiten da. Lurraldeak ez dauka izaera juridikorik. Guztira 10.000 bat hiztun dira.

Kokatu, mesedez, Miranda do Douro irakurle euskaldunentzat.

Miranda do Douro –guretzat, Miranda, huts-hutsean– Bragantzako barrutian dagoen udalerria da. Portugalgo ipar-ekialdean kokatzen da, Espainiako Estatuarekin egiten duen mugatik gertu, Europako mugarik zaharrena denetik gertu. Ekialdean Douro ibaiarekin egiten du muga eta iparraldean Espainiako Zamorako Aliste eskualdearekin. Gutxi gorabehera 7.000 pertsona bizi dira, 487 kilometro koadrotan. Hemen populazio dentsitatea oso-oso baxua da eta, gainera, oso zahartuta dago.

Zein da mirandesaren egoera?

Egoera kritikoa bizi du gaur egun. Izan ere, eskualdea populazioa galtzen ari da eta horrek dakar hiztun kopurua asko jaitea. Beste alde batetik, portugesa-ren eta ingelesaren presioa –azken hau batez ere hedabideetan– oso handia da. Gainera, mirandesa beti ikusi izan da hizkuntza “txiki” bezala. Horrela ikusi izan dute eliteek eta tokiko agintari-ek. Hitzunei bazterketa eta gutxieste politiko-ekarri die; gutxiesteak karga negati-boa eragin du erabiltzen dutenengan eta, beraz, egunero erabiltzen dutenei gutxiagotasun sentimendua. Hala ere, egunero asko erabiltzen da mugatik gertuen dauden herrixketan, hain zu-zen zahar gehien bizi den herrixketan.

Eskualdea –Miranda do Douroz gain, Vimioso udalerrian hiru herrixkatan mirandes hiztunak daude– eta diaspo-ra kontuan hartuta, hiztunak gutxi go-rabehera 8.000-10.000 dira. Mirandes hiztun komunitate handiak daude Bor-delen (Frantzia), Porton eta Lisboan (Portugal).

Associaçon de la Lhéngua i Cultura Mirandesa (ALCM) elkartean egiten duzu lan. Zeinek osatzen duzue?

Mirandako kultura eta hizkuntza maite dugun pertsonok osatzen dugu. Zuzenda-ritzan hainbat gaitasunetako kideak gau-de: hizkuntzalaritza, kudeaketa, informa-tika, hizkuntzen irakaskuntza, musikaren ikerketa... Erabakiak denon artean hartzen ditugu, kontsentsuz, nahiz eta zuzendari-tzako kide batzuk Mirandatik kanpo bizi.

Idazkaritza lanak egiten ditut eta sol-datapean dagoen pertsona bakarra naiz. Orain dela urtebete pasa hasi nintzen beharrean elkarteari bizitza eta ikus-garritasuna eman nahian. Ahalegintzen ari gara elkartea erreferente bihurtzen, hizkuntza, musika, kultura edo argazki-gintza maite dutenentzako.

Zeintzuk dira ALCMren ekinbide nagusiak?

Ardatz nagusia hizkuntzaren dibulga-zioa da, baita hizkuntza mantentzeko lana egitea ere. Horretarako, hainbat ekimen jarri ditugu martxan.

Batetik, mirandesa ikasteko ikastaroa dugu sarean, baita mirandesa ikastaroak ematen dituzten irakasleentzako prestakuntza programa ere. Bestetik, tokiko agintariei itzulpenak egiten eta terminologia arazoetan laguntzen diegu. Liburuak ere editatzen ditugu. Gaur-gaurkoz bi bilduma nagusi ditugu. *Lhéngua* izenekoan (hizkuntza mirandesez) mirandesari lotutako materialak argitaratzen ditugu eta *Tierra* izenekoan (lurra mirandesez) mirandesez idatzitako lanak, originalak eta itzulpenak, gaur egunekoak eta berrargitalpenak, argitaratzen ditugu.

Hedabideetan ere hartzen dugu parte. *Jornal Nordeste* astekarian orrialde bat idazten dugu mirandesez eta, hama-bostean behin, Portoko unibertsitateko Casa comum ikastegiarekin elkarlanean, podcasta egiten dugu.

Beste alde batetik, mirandesa dokumentatzen ari gara eta Miranda do Douroko toponimia batzen. 24 herrixketatik hiru baino ez zaizkigu falta. Eta azkenik, baina ez du garrantzi gutxiago, sare sozialetan hainbat kanpaina egiten ari gara hizkuntzaren alde. Ahalegintzen gara pertsonak eta erakundeak ohartarazten hizkuntza babestearen eta mantentzearen garrantziaz, bereizten gaituen elementu positibo bat den heinean.

Zer jarrera dute tokiko eta Portugalgo erakundeek hizkuntzari buruz?

Bertako erakundeek hizkuntza ezagutzen dute, baina, hirian gutxi hitz egiten denez, erosotasunagatik edo ezjakintasunagatik ez dira ahalegintzen erabiltzen.

Portugalgo erakundeek, berriz, ezikusiarrena egiten dute, batez ere, Lisboako gobernu zentralak eta unibertsitate gehienek. Hau esatea tristea da, baina egia da. Gaur egun, ardura duten



"Portugalgo Errepublikak Gutxitutako Hizkuntzen Europako Gutuna sinatu eta berretsiko balu, hizkuntzak bultzada berria jasoko luke".

erakunde askok, tokikoek eta nazionalak, hizkuntza folkloretzat dute eta ez dira konturatzen mundua ikusteko beste modu bat dela, gure modua, alegia.

Hamar urte barru zelan egongo da mirandesa?

Oso galdera zaila da, oso. Nire ustez, hiztunok gero eta gutxiago izango gara. Baina bada esperantza. Portugalgo Errepublikak Eskualdeetako edo Gutxitutako Hizkuntzen Europako Gutuna sinatu eta berretsiko balu, hizkuntzak bultzada berria jasoko luke eta "*proua*" (harrotasuna) indartu ahal izango genuke. Sinatuko ez balute, ondare hau gugana belaunaldiz belaunaldi ekarri dutenen begietara traizioa egingo lukete oraingo gobernuak eta etorriko diren

gobernuek. Lisboako bulegoetan eroso daudenek, karta onartzen ez badute, ez dute inondik ere herri hau ordezkatzeari merezi, gure herriak beti Portugalen alde dena eman badu ere.

Bere horretan amaitu da elkarrizketa, baina solasaldiak luze jo zuen Mirandako jatetxe batean eta mugako herrixketan barna. Gure solaskideak, beste gauza askoren artean, *falar fidalgo* esamoldea erakutsi digu. Hau da, portugesez hitz egitea kaparearen edo hidalgoaren hizketa mailan jartzen zen eta horren ifrentzuan zegoen mirandesez berba egitea, modu basan hizketan egitea, alegia.

Hizkuntzaren etxeak eta habiak zutik iraun dezala opaz agurtu dugu elkar, hurrengora arte. ●

BABESLETZA:



Lezoko
Unibertsitateko
Udala

Eskaini euskara
lehen hitza euskaraz!

ARGIA 1919 · 2020



EUSEBIO ARIZMENDI GUDARI OHIA

Frankismoak hila, herritarrek ahaztua

1952ko irailaren 7an guardia zibilek Eusebio Arizmendi Zumaeta hil zuten tiroz Markina-Xemeinen, zubi baten ondoan. Aurretik, herritarrek abisua jo zieten, oiloak lapurtzen zizkien ezezagun bat zebilelako inguruetan. Baina nor zen morroi hura? Zergatik irten zen arineketan agenteek alto eman ziotenean? Bertsio ofizialak hiltzaileak absolbitu zituen eta frankismoko giro itogarriak egin zuen gainerakoa, injustiziaren zuloan eror zedin. Ahaztuen Oroimena 1936 elkarteak bere historia erreskatatu du orain.

 URKO APAOLAZA AVILA

Pago adarretik jauzi txiki bat egin da jaitsi da gizona, kaleko arropa jantzita. Goian utzi ditu abarka urratuak, praka zaharrak eta linterna zilindriko amerikarra. Aterki beltza enborraren kontra jarri duenean Etxebarriko elizako ezkilak entzun dira. Zazpiak. Badoa beherantz, Bilborako autobusa laster igaroko da. Markinako geltokira iritsi baino metro batzuk lehenago, esku banatan daramatzan zakuak ezkutu ditu bazter batean, ingurura begiratu du, ez dabil inor, zakuak berriz hartu eta zain geratu da zelaian.

Baina, orduan, zuhaitz atzetik txapelo-kerra agertu zaio ezertarako denborarik gabe, galdezka. Nora zoaz? Zer da hori? Erantzunik ez. "Jarri esku-burdinak!" Agindu dio sarjentuak alboko guardia zibilari. Azkar doa dena: bultzakada bat, korrikaldia, *alto* oihuren bat... danba-danba! Zerraldo geratu da laguna Xemeingo zubiaren eskaileretan, bala batek lepondoan egindako zulotik odola dariola.

Domeka da eta mezetara joandako jende guztiaren ahotan galdera bera dabil: nor da? Ofizioaren ondoren abadeak eliztarrei abisatu die gorputza ikusgai egongo dela publikoarentzako, ea inork ezagutzen ote duen. Baina nor da gizon hori? Ba, berdin du, gizajo bat, lapur bat. Guardia zibilaren informearen arabera hiru oilo, bost oilanda eta oilaskoa zeramatzan bizirik zakuetan. Identifikaziorik ez da ageri ordea. Hutsunea. Eusebio omen, *Eskailu* esaten zioten... harik eta azkenean lortzen duten arte hildakoari izen-abizenak jar-tzea: Eusebio Arizmendi Zumeta, 40 urtekoa, Eibarren sortua.

Datu horiek Bizkaiko Gobernu Militarreko diligentzietatik abiatutako sumario batean artxibatuta geratuko dira, eta Markinan, urteen poderioz gero eta urrunago entzungo da Xemeingo zubian hil zuten "oilo lapurraren" historia bitxiaren oihartzuna.

Ahaztuen Oroimena 1936 elkarteak Eusebio Arizmendiren hilketaren atzean

ezkutaturiko injustizia azaleratu nahi du: kartzelaratzeko luze baten ostean, "oinarri sozialik gabe" bizirauten saiatu zen gudari ohiarena, Alberto Unamuno elkarre horretako kideak argitu digunez. Duela pare bat urte Markinan emandako hitzaldian xehetasun batzuk azaldu zituzten, eta orain, krimen horri buruzko errelato frankista deseraikitze informazioa dakarkigu orriotara.

AMUATEGI BATAILOIAN GUDARI

Eusebio Arizmendi 1911ko azaroaren 5ean jaio zen Eibarren. Arrateko Partxua baserrian morroi aritua, 1936an faxistek estatu kolpea jo zutenean Amuategi batailoian aurkeztu zen boluntario. Batailoi hori Eibarren sortu zen JSUren ekimenez (Gazteria Sozialista Bateratuak) eta ideia ezkertiarrek zituzten milizianoek osatu zuten batez ere -Aquilino Amuategi lider sozialistaren izena zerman-. Erreketeak iritsi zirenean, batailoi horretako kideek Arrateko gainak lubakiz eta zuloz josi zituzten, eta horrela eutsi ahal izan zitzaion Gipuzkoa mendealdeko fronteari 1936ko irailean.

Zazpi hilabetez, Akondia eta Kalamua mendi inguruak borrokaldi latzen lekuko izan ziren. Arrateko santutegia kanpandorrerik gabe geratu zen, Karakatetik frankistek jaurtitako opari baten ondorioz. Eibar etengabe erasotzen zuten inguruko gailurretan jarritako bateriek, 1937ko apirilaren 24 eta 25ean abiazio alemaniar eta italiarrak guztiz txikitu zuten arte. Bonbardaketaren hurrengo egunean, Emilio Molaren tropak II. Errepublikak aldarrikatu zen hiri sinbolikoan sartu ziren, hegazkinak Gernikarantz zihoazen bitartean.

Eusebio Arizmendik ordurako sarjentu graduaren intsignia zuen soinean, eta bazuen eskarmenturik etsaiari hortzak

erakusten. Euzkadiko Gobernuak txosten batek, Arrateko bidegurutzean errepublikarrek egindako operazio garrantzitsu baten berri ematen du: 1937ko martxoaren 14an ustekabean egindako erasoaldian, hainbat lagun hil eta zauritutako erreketek bat atzeman zuten. Errekete hori Arizmendik eraman zuen Eibarko ospitaleraino, batailoiko komandantearen arabera. Gerora, ekintza horregatik ere epaituko zuten tribunal frankistek.

Eibar erori ondoren, Amuategi batailoiko kideetako askok Bilbo babesteko azken borrokaldi handian hartu zuten parte, Lemoatxan. 1937ko ekainaren 3an gudariak kontraerasoa jo eta gailur hori epe laburrean berreskuratzea lortu zuten, baina dozenaka burkide bidean utzita. Arizmendi ez zen onik atera handik, bere izena zauritutako ofizialen zerrenda batean ageri da, Ahaztuen Oroimenak eskuratutako dokumentuetan ikus daitekeenez.

Santanderreko La Magdalena lurmurturreko jauregian jarritako ospitalera ebakuatu zuten lehenik, Avilesera ondoren, eta azkenik Valdecillako osasun zentrorara. Kantabriar lurralde haiek ihesbiderik gabeko sator zulo bihurtu ziren eta italiar *volontarie* faxistek erraz hartu zuten Santander. Beste milaka askorekin batera, hantxe harrapatu zuten Partxuako gudari eibartarra.

IHESALDIA ETA KARTZELA

1941eko abuztuaren 6a, Donostia, Ondarretako kartzela. "*Debemos absolver y absolvemos al procesado Eusebio Arizmendi Zumayeta (sic), el cual deberá ser inmediatamente puesto en libertad si no se hallase detenido por otra causa*". Epaila militarrek Arrateko bidegurutze-ko erreketeen kontrako ekintza ikertu

zuen, baita Partxuakoak zerikusirik izan ote zuen Serafin Anchotegui Soraluzeko enpresario karlistaren heriotzarekin ere -1936an Arraten preso zutela miliziano batek tiroa jota hila-. Ez zuen deliturik ikusi auzipetuaren iraganean.

Baina Arizmendik beste epaiketa bat zuen zain, *sumarísimoa*, azentu-marka handi batekin: 1938ko otsailean Santanderreko Corbango kontzentrazio-esparrutik bi lagunekin ihes egin nahi izateagatik. Seminario zahar batean eraikia, esparru hartan milaka preso errepublikar pilatu zituzten gerra garaian. Arizmendi ilea mozteko lanetan aritzen zen eta baimena zeukan noizbehinka horma horietatik ateratzeko. Egun batean, "txikito batzuk hartzera goaz" esan zioten kabo zaindariari, eta ez ziren itzuli.

Esles izeneko herritxo batean harrapatu zituzten, mendian, emakume base-rritar batek emandako esne basokadak oraindik sabela berotzen zuela. Arizmendik deklarazioan esan zuen "pare bat egunetarako" etxera itzuli nahi zuelako egin zuela hanka. Gogotik ordaindu zuen: aurretik izandako auzia errebisatu eta, besteak beste, Soraluzeko alkate frankista Miguel Larrañagak deklaratu zuen bere kontra. 14 urte, 8 hilabete eta egun bateko kartzela zigorra ezarri zioten.

PARTXUAN BADA INOR?


Arrateko portikoaren frontoian neska gazte bat esku-pilotan ari da. Lehen Mundu Gerrako albisteak apenas iristen dira elizaren kontra hala moduz eraikia dagoen baserri kaskarrera, eta hango alaba Eugenia Iriondok pilota baino ez du buruan. Gurasoeekin eta anai-arrebekin bizi da, baita *Eskailu* deitzen dioten morroi batekin. Zaila da aterabidea Partxuan, ron apur batez berotzen dute ne-

AUTOPSIA

Hilketaren ondoren hainbat argazki atera zizkieten Eusebio Arizmendiren hilotzari; horiek dira bere irudi bakarrak. Egin berri zizkieten tiroez gain, 1936ko gerrako zaurien orbanak ere ikusi zituen mediku forentseak bere gorputzean.

AHAZTUEN OROIMENA 1936





EGOIBARRA



AHAZTUEN OROIMENA 1936

ZIGORTUA. Eusebio Arizmendi bigarren aldiz epaitua izan zenean Miguel Larrañaga Soraluzeko alkate frankistak bere kontra deklaratu zuen (ezkerrean); 14 urteko kartzela zigorra ezarri zioten. 1936ko Gerran Amuategi batailoian hartu zuen parte: Eibar defendatu eta Gipuzkoako frontea egonkortzeko zeregin garrantzitsua izan zuen batailoi horrek, baita Lemoaxako borrokaldian ere. Eskuinean, batailoiko hainbat kide.

gua su baxuaren inguruan. Horregatik, abadeak proposatzen dienean Eugenia zerbitzari bidaltzeko, familiak ez du dutarik egiten.

Denborarekin erraketalari ezagun bilakatuko da Madrilen eta Habanan, *Eibarresa* ezizenez. 1936ko Gerra lehertzean, Eugenia jaioterrira itzuliko da eta Gernikako bonbardaketak Munitibarren errefuxiatuta harrapatuko du, hegazkinek euren deskargak egiteko bira ematen zuten zorigaiztoko toki horretan. Eibarko txikizioaren ondoren, Gernikaren suntsiketa, Munitibarkoa... Kalamuan apenas gelditu da arbola bat zutik, eta Partxuan jada ez da inor bizi.

1962an Elizak baserria erosi eta duela urte batzuk desagertu zen, santutegia eraberritu zutenean; portikoan leiho bat besterik ez da gelditu oroigarri antzeko.

OILO LAPUR, HALABEHARREZ

Eusebio Arizmendi *Eskailu* bakarrik dago 1952an kartzelatik irtetean. Hamalau urteko espetxealdia gogorra izan da, baina irteeran aurkitu duena ez da samurragoa. Preso ohia izaki, lege ez du lanerako eskubiderik, ezta fabrikaren

batean karitatez beharra beltzean eman-go dion nagusiren baten kontakturik ere. Zer egin? Erabakita dauka, gau-lanean ariko da Bilboko jatetxeei oiloak saltzen. Kalamuako bide-bazterrak ederki eza-gutzen ditu, eta Etxebarria aldetik igotzen bada ez du inork ezagutuko... Hobe baserrietan eskua sartzea, gosez hiltzea baino.

Arizmendirekin batera
kondenaturiko presoak
indultatu egin zuten,
bera ordea ez, kanpoan
ez zuelako inor
eskaera hori egiteko

Ahaztuen Oroimenak detaile batean jarri du indarra, eibartarraren bakardadeaz jabetu gaitetzen: berekin batera kondenaturiko beste presoak, Jose Mari

Ostolaza donostiarra, indultatu egin zuten urte gutxitara, Arizmendik ordea preso jarraitu zuen: "Indultua ezin zuten berak eskatu, familiak eskatu behar zuten, baina kanpoan ez zuten inor", dio Unamunok.

Hilketaren sumarioan, puzzlea osatzeko testigantza batekin egin dute topo ikerlariek. Txaketako poltsikoan, paper zati batean, Feliciano Díaz izeneko guardia zibilaren helbidea zuen idatzita Arizmendik, Bilboko La Concordiako geltokiko zaindaria. Hari tiraka jakin zuten ama bizirik zuela, hiri hartako Cortés kalean. Ageda Zumaeta Arrieta. Elgetan jaioa, alargun gelditu zenean 5 urteko Eusebio txikia Eibarko miseriakordia etxean utzi behar izan zuen, Bilbora inude joateko: "Ez dut inoiz gehiago berarekin harremanik izan", esan zuen semearen heriotzaren berri eman ziotenean.

Antonio Iriondok jaso zuen umezur-tza, Partxuako Eugenia erraketariaren anaiak; baina ez zuen semetzat hartu, baserrian morroi aritzeko baizik. Halaxe igaro zuen haurtzaroa *Eskailu*-k, asto lanak eginez, sukaldean izebaren Antillako kartak irakurtzen zituzten bitartean.



INDALECIO OJANGUREN / GURE GIPUZKOA



INDALECIO OJANGUREN / GURE GIPUZKOA

ARRATE ETA MARKINA-XEMEIN. Ezkerreko irudian Partxua baserria ageri da elizako ezker hormaren kontra; santutegia oso kaltetua geratu zen gerrako erasoen ondorioz. Eskuinean, Xemeingo zubia 1946an inauguratu berritan; 1952ko irailaren 7an Eusebio Arizmendi guardia zibilengandik ihesi kale horretatik abiatu zen, eta zubiaren ondoan dauden eskaileretan erori zen tiroa jasota.

JUSTIZIARIK EZ

Etxebarría eta Barinagako auzotarrek segituan erreparatu diote susmagarriari. “Kapazuak hutsik eraman eta beteta ekartzen ditu”, azalduko dio Domingo Oregik guardia zibilen sarjentuari. Operatiboa martxan dago, denek dakite bere bila doazela, Arizmendik izan ezik. Irailaren 7an, goizeko 7:15etan telefonoaren txirrinak jo du kuartelean: “Oraintxe pasa da presaka”, dio Etxebarriako Catalina Zelaiaren ahotsak beste aldean. Agentek autobus geltoki ondoko Arkupean geratu dira zain. Hortik aurrerakoa badakigu.

Sabino Ormaetxeberriak bertatik bertara ikusiko du gertatutakoa, zazpietako mezetatik ateratzean Zelaiko plazara joan baita, ezagun batek esan diolako “oilok lapurtzen zituen pertsona atxilotu behar zutela”, epaileari geroago aitortuko dionez. Lekuko zuzena da: korrikaldiak, tiroak... “hortik pixka batera oihuka itzuli da guardia zibila, forentseari deitzeko aginduz”.

Udal deposituan egindako autopsiak baieztatu du tiroek eragin diotela heriotza, baina horrez gain “aspaldiko bi

zauriren orbainak” atzeman dizkiote sabelaldean. Gerrako oroigarriak. Argazki batzuk atera eta hurrengo egunean Markinako hilerrian lurperatuko dute, izara zuri batez estalita. Oilok nekazal sindikatu bertikaleko lehendakariaren kargu utziko dituzte.

Arizmendiren hilketaren ondoren, instrukzio-epaile militarrek auzia abiatu zuen Antonio Martín eta Valeriano Torrecilla guardia zibilen aurka, homizidioagatik. Baina ez zuten euren burua defendatzeko ahalegin askorik egin behar izan: agenteari kolpea eman eta ihes egiten saiatu zela, armak eraman zitzakeen susmoa zutela, Eibarko ezkertiar talde-adar batekoa izan zitekeela, edo auskalo, “bandoleroa” akaso... 1952an gaude, grebalaria gerra kontseiluetan epaitzen dituzte, eta makiak berriz, oraindik animaliak bezala ehiatzaten Espainiako mendialdeko bazter askotan. “*La conducta de la pareja de la guardia civil se haya plenamente justificada (...) Por ello procede que Vuestra Excelencia decreta el sobreseimiento definitivo de la presente causa*”. Artxibatuta, horrela amaitu zuen auziak 1954ko apirilaren 29an.

GALDERA ASKO, ERANTZUN GUTXI

Galdera asko gelditu dira airean: zergatik egin zioten agenteek tiro Arizmendiri, oilo lapur soila zela jakinda? Zer harreman zeukan amarekin? Eta Bilboko Feliciano Díaz guardia zibilarekin? Zergatik gelditu da hilketa hau markinarren eta eibartarren oroimenean galduta? Frankismoak errepinitu, sistemak estigmatizatu eta jendarteak bazterturiko biktima batez ari garelarik, galderak soberan daude, baina erantzunak agian ere bai.

Herritarrek hilketa horren aurrean izandako jarreraz, Unamunok garbi du: “Diktadurak baldintzatutako gizarate batez ari gara, are gehiago Markinako bezalako nekazal eremu batean; nahitanahiez kontu handiarekin ibili beharra zegoen, dena kontrolatuta zegoen zirkulu itxi batean bizi ziren”. Eta zirkulu horretan justiziak ez zeukan tokirik.

Eusebio Arizmendi Zumaeta gudari ohia ez da ageri frankismoaren krimenen inguruko liburu edo zerrendetan, ez dadila berriz ere Partxuako morroia umezurtz geratu. ●

Eraikin historikoekin elkarriketan



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Berguedá eskualdea (Katalunia), 983. Lehenengoz Merola gotorlekua aipatzen da dokumentu batean. 1050ean Merolako Santa Maria eliza erromanikoa aipatzen da eta garai bertsuan agertzen dira Merolako jaunen lehen aipamenak ere. Familia hura XII. mendean hasi zen nabarmentzen, eta XIII. mendean, Bernardo Merolako Guilhem Berguedan trobadore ospetsuaren laguna zen; harekin batera Viceko apezpikuaren aurka egiteagatik egin zen ezagun. Ustez, Bernardok berak eman zuen Merolako gaztelua eta, beraz, oraindik zutik dagoen dorrea, eraikitzeke agindua.

XV. mendean Katalunia astindu zuten lurrikarek suntsitu zuten ia eraikin osoa, eta dorre nagusiaren iparraldeko horma besterik ez zen zutik geratu. 2016an paretaren goiko zati bat erori zen eta, amiltzeko arrisku handia zegoela ikusita, horma sendotzeko zaharberritzea egitea erabaki zuten. “Ukitu gabe zaharberritzea” zen helburua eta horixe egin du Carles Enrich estudioak: 15 metroko hormaren ondoan egurrezko egitura bat ipini du, horma bera indartzen duena eta, gainera, bisitariari goraino iristeko aukera ematen diena. Hala, duela 600 urte galdutako ikuspegia berreskuratzea eta arrastoen eta herritarren arteko harremana estutzea lortu dute.

300 kilometro hegoaldera eginez oso bestelako adibidea dago: Saguntoko erromatar teatroa. 1990 eta 1994 urteen artean egin ziren zaharberritzeko lanetan, zegoena suntsitu eta berriz eraiki zuten. Epaitegiek lanak legez kontratatutako arren, lehengoratzeko agindua betetzea ezinezkoa da eta, beraz, saguntoarrek erromatar itxurako antzoki berri bat dute, baina ondarea betiko galdu dute.

INGURUKO BESTE ADIBIDE BATZUK

Gurean denetariko adibideak daude: Bilboko Urbitarteko biltegi frankoa, esaterako. 1917an eraikitako egituraren barrualdea 1990ean bota zuten, eta 2003an, ia fatxada osoa. Gaur egun Isozaki atea dago bertan, baina 2003an



Merolako gazteluan (Bartzelona) zutik geratzen den horma bakarra amiltzeaz zenez, egurrezko egitura ipini diote, dorrea sendotzeaz gain, herritarrei eraikin historikora gehiago hurbiltzeko aukera ematen diena.

bota ez zuten fatxada zatia mantendu dute. Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkartearen (IOHLEE) hitzetan, fatxada zati horrek “hiriak bere iragan industrialarekiko gutxieneko errespetuz garatzeko gaitasunik ez duela adierazten du”.

2012an, Donostiako Klub Nautikoa (1929) zaharberritzean, guztiz errespetatu nahi izan zituzten Le Corbusierrek berak gorapatutako eraikinaren jatorrizko ezaugarriak. Gerora gehituta, sokazko barandak eta banderatzokak kendu zituzten, eta jatorrizko eskaileira metalikoak berregin, besteak beste. Zenbait herritarrek ez zituzten erabaki horiek ulertu eta Change.org-en zaharberritze lanen kontrako sinadura bilketa ere abian jarri zuten, ez zelako asmatu proiektuaren nondik norakoak gizarteratzen edo kendu zituzten elementu berri horiek ordurako oso txertatuta zeudelako donostiarren iruditegia kolektiboan.

2000. urte inguruan hasi ziren Gasteizko Santa Maria katedraleko zaharberritze



METALOCUS

lanak. Hamar bat urteko lanak aurreikusi arren, bazekiten epea luzatu zitekeela, eta dagoeneko 20 urte joan dira. Oso kezka garria zen eraikinaren egoera eta zaharberritzea kontu handiz egin behar zen; 1960ko hamarkadako zaharberritze lan inbaditzaileek ez zioten batere mesederik egin XIII. mendeko egiturari, alderantziz, egoerak okerrera egin zuen. Horregatik, jatorrizko elementuak ahalik eta gutxien ukituz, material eta teknika zaharrak errespetatuz ari dira lanean. Gainera, *Obretan eta irekita* lelopean, lanetarako sortutako egiturei pasabide batzuk gehituta, publikoari zabalik egon da prozesu guztia.

Katedrala bera eta zaharberritze lanen fase guztiak gertutik ezagutzeko aukeraz gain, herritarrek, lanak egin bitartean egindako aurkikuntza arkeologikoen berri ere jaso dute. Hainbat sari jaso ditu proiektuak eta, guztira, 350.000tik gora bisitari izan du. Arazoa zena, Merolan bezala, herritarren eta ondarearen arteko elkarriketa sustatzeko bidea bihurtu da. ●

BIXENTE SERRANO IZKO



Omenaldia Bixentikori

XABIER LETONA BITERI

Ekainaren hasieran hil zen Iruñean Bixente Serrano Izko, irakasle, historialari, idazle eta politikaria, eta joan den irailaren 11n egin zioten omenaldia Iruñeko Katakarak aretoan, Geronimo de Ustariz historia institutua, Eusko Kultur Fundazioa eta Pamiela argitaletxearen eskutik.

Historialaria, irakaslea eta sortzailea izan zen eta esparru horietan ezagutu zuten Josu Chueca historialariak, Amaia Alvarezek (Eusko Kultur) eta Pello Elzaburuk (Pamiela) aletu zituzten Serrano Izkok horietan egindakoak, Nerea Perez Ibarrola Geronimoko lehendakariaren gidaritzapean.

Euskaraz egin zen ekitaldi osoa, zehaztu zenez, Izkok alor horiek euskaraz jorratu zituelako. 1987an ekin zion Nafarroako eskola publikoan irakasle egindako ibilbideari eta mahaian zeuden bi emakumezkoen irakaslea izan zen: "Izaera pedagogikoa zuen, dibulgatzailea eta irakasle gisa oso gertukoa zen", aipatu zuen Alvarezek. Perezen irakaslea ere izan zen Batxillergoan: "Inoiz ez nuen pentsatuko gaur hemen mahai honetan egon nintekeenik, eta horretan Bixentek ere bere harri koxkorra jarri zuen". Eusko Kultureko historia ikastaroaz arduratzen zen Bixente eta Alvarezk lekukoa nola pasatu zion kontatu zuen honek.

"Ez genion *Bixentiko* deitzen txikia zelako bakarrik –esan zuen Chuecak– afektiboki, pertsona gisa, oso atsegina

zelako ere bai". Eta gogorarazi zuen ez zela historialaria bakarrik izan, diktadura garaian ETako militantziarekin eta ondoren izandako jarduera politikoarekin protagonista ere izan zela: "Nolabait bi bide artean mugitzen zen: historia landu eta irakasten zuen, baina berak argi zioen historiak ez duela determinatu behar izan nahi duguna".

Bixentek idatzitako liburuei errepa-so ederra eman zien Elzaburuk: "Gizon ona zen, zentzu *machadianoan*". 2004-2013 artean Zelaia Sariko epaimahaikidea ere izan zela gogoratu zuen. Liburu egile eta erosle ere bazela azpimarratu zuen: "Bixente ez zen etxe batean bizi, liburutegi bat diseinatu zuen han bizi-tzeko". Liburu ondare handia zuela eta harekin dokumentazio funts bat sortzea proposatu zuen. Urduritasunean, bere isilune luzeez ere mintzatu zuen, haren ironiaz, umoreaz...

Iruñeko Alde Zaharreko kaleetan baso-erdtan ikustea ere ez zen ezohikoa eta, publikotik, alor hori ere ekarri zuen aretora Fernando Mendiola historialariak: "Garazin, Tokin... ordu txikietan ere ikasi eta gozatzen zuen".

Historia dibulгатzaile ona zen eta, lan ugari argitaratu zituen prentsan, besteak beste aldizkari honetan eta *Berrian*. Horrexegatik ere, lerro haue-tatik gure omenaldi xumea egin nahi izan diogu ARGIAren komunitateko kide izandako kolaboratzaile finari. Adiorik ez *Bixentiko*! ●

ONGI ETORRI KOMUNITATERA!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



"Etorkizuna. Etxea euskarazko edukiz bete nahi dut. Eduki fisikoz. Semea gaztelaniak inguratuta bizi da. Euskarazko edukiak eskura jarriko dizkiot, etxean behintzat euskarak inguratu dezan... gozatzen ekingo diot batailari, irakurgai ederrak irakurritz burutuko dudak konkista izango da. Aurrera Bolie!".

Donostiako Dani

"Euskarazko informazio independentea bultzatu beharra daukagu, botere ekonomikoen presiorik gabe informatuko gaituena".

Getariko Iñaki

"Kazetaritza kritikoa bultzatu nahi dudalako. Nire burua formatzeko erreminta interesgarria dela pentsatzen dut".

Donostiako Ander

"Telebistaz haragoko edukiak beharrezkotzat ditudalako. Informazioa erritmo geldo batean nahi dudalako".

Donostiako Aritz

DERRIGORREZKO NEKAZARITZA ZERBITZUA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Atzo etorri zait eskura Sergi Caballero González nekazari katalanaren idatzi bat. Sergi oso ezaguna da nekazaritza iraunkorraren alde egiten duen etengabeko lanagatik. Bere izena askotan ikusten da hitzaldi, batzar, eskola eta batez ere sareetan. Batez ere permakultura deritzonaren sustatzailea da. Permakultura aspaldiko nekazaritza eredu bat da. Etengabekoa edo iraunkorra den kultura adierazi nahi du. Kultura, noski, lurraren kultura, nekazaritza alegia.

Nekazaritza iraunkorraren oinarriak hiru dira. Lehenik, lurra zaindu behar dugu: lur bizia lur osasuntsua da eta gure bizitza eta osasuna zaintzeko era bakarra da. Bigarrenik, pertsona jendeak bizitzeko beharrezko dituen baliabidetara heltzeko aukera. Hirugarrenik, biztanleriari eta kontsumoari mugak ezartzea; gure beharrak gobernatuz, zenbait baliabide alde batera utz ditza-kegu aurreko biak sustatzeko.

Gutako bakoitzak ikusi behar du bere burua non dagoen, iraunkortasunaren benetako ikuspegi horretatik zeinen hurbil edo urrun dagoen. Iraunkortasuna negozio bihurtua dute askok, tartean administrazio gehienek; eta ez dute ez lurra eta ez pertsonak jagoteko inolako



Sergi Caballero Espainiako Gobernuari eskaera hau egin dio: 20 urtera iritsi ondoren, 9-12 hilabete eman ditzagula denok lurrarekin eta animaliekin hartu-emanen, tokiko komunitateko nekazaritza ustiatze gietan lankidetzan.

asmorik ere; patrika besterik ez dute zaintzen. Berde eta iraunkor agertzen dute bere burua, gure egunerokoa, gure ingurua eta ingurumena kutsatuz. Eta gu

galdu-gordean, nora gabean.

Nora gabe horri buelta eman eta etorkizunerako bidea, norabidea, geure esku hartzeko eta nolabidea atzemateko bide polita azaldu du Sergik. Espainiako Gobernuari egin dio eskaera, lege proposamen baten bidez ezar dezala Derrigorrezko Nekazaritza Zerbitzua. Eta honela argitu du: 20 urtera iritsi ondoren, 9-12 hilabete eman behar ditugu denok lurrarekin eta animaliekin eman-hartuan, tokiko komunitateko nekazaritza ustiatze gietan lankidetzan. Helburua da bizitzako oinarritzako prozesuetan parte hartzea eta ikastea eta oinarritzako elikagaien beharrak asetzea. Agian, modu honetan kalitatezko janari ekologikoen balioa ezagutu, eta bere prezioaz kexatzeari lagako diogu. Aldi berean, alokairuen eta hipoteken prezioa normalizatzeari utzi-ko diogu, osasun sistemaren kontsumoa murrizten eta "kakak" jaten ditugun bi-tartean. Garai bateko derrigorrezko soldaduska bezala, baina eraginkorra, herriaren aldekoa, geroaren aldekoa. Alde onekoa, alde ederrekkoa.

Ulertzea eta jabetzea bezalakorik ez da. Badakigu. Jakin badakigu. Jakin, ba al dakigu? Nola elikatzen duzu zeure burua, edo gauza bera dena, zeure alabarena? ●



SASIAINGO BARATZA

LURRETIK ETA LURRAREKIN
ERRESPETUZ LANEANGARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

2015ean abiatu zuten Sasiaingo Baratza proiektua Abaltzisketan. Garbiñe Arregi Ormaetxea Sasiaingo kideak urtebete egin zuen Irlandan nekazaritza ekologikoarekin lotutako proiektuetan boluntario eta langile, eta han hartutako esperientzia eta ezagutzak hona ekarri eta nekazaritza bizitzeko erronkari ekitea erabaki zuen. “Lurretik bizitzea eta elikadura osasuntsu bat eskaintzea da proiektuaren helburua, gertutasuna oinarri hartuta”, azaldu du.

EKOLOGIKOA ETA
PERMAKULTURAN
OINARRITUTAKOA

Hasieratik zuen argi bestelako nekazaritza eredu baten alde egin nahi zuela: gertukoa, txikia eta ekologikoa. Permakulturaren inguruko ikastaro batean Arabako Susturriak Habitat Design kooperatiba ezagutu zuen, eta haien laguntzarekin hainbat aldaketa egin zituen proiektua martxan jarri eta bi urtera: “Nirea bezalako proiektuak laguntzen dituzte, eta haien aholkularitza izan genuen: proiektuaren diseinu aterratzea egin ziguten beraiek, eta permakultura teknikak ikasten ere aritu ginen”.

Baratzean aritzen dira batez ere Sasiaingo kideak, eta inguruko kontsumo taldeetan saltzen dituzte beraien produktuak. Baina barazkiez gain, baso jangarria eta animaliak ere badituzte: ardiak, behorra eta ahuntzak. Arrau-



tzak eta sagar zukua ere saltzen dituzte. “Frente asko ditut irekiak eta jendearen beharra dago, baina beti eduki dut inguruko jendearen kolaborazioa eta boluntarioak ere hartzen hasi nintzen duela bi urte”. Bera Irlandan aritu bezala, baserriko lanetan laguntzen diote *woofer* boluntarioek orain (loaren eta mantenuaren truke denboraldi batez baserrian lan egiten dute *wooferrek*). Ematen dioten laguntzaz gain, kanpoko jendearekin hartu-emana izateko eta haiengandik ikasteko ere balio diola kontatu du.

BESTELAKO EKIMENAK ETA
AUZOLANAK

Sendabelarren munduarekin harremana duen biologo batekin elkarlanean da-

bil Arregi azken aldian, eta berarekin hainbat tailer egitea planteatzen ari da. Horrez gainera, parte hartzen duen kontsumo taldeko jendearekin eta inguruko lagunekin auzolanak ere egin izan ditu Sasiainen: “Negutegia handitzen aritu ginenean, esaterako, herriko jendeak eta bizilagunek asko lagundu ziguten, eta gure inguruan egiten diren beste auzolanetan parte hartzen saiatzen gara”.

Koronabirusaren krisiak, eragindako kalte guztiez gain bere alde ona ere eduki duela uste du, jendartea gertuko kontsumoaren garrantziaz pixkanaka jabetzen hasteko balio izan duelako: “Badirudi gertukoari eta kimikorik gabe ekoiztikoari pixkanaka balore handiagoa ematen zaiola”. ●



BIOTERRA

Sarrera
doanEuskadiko
EKO azoka
haundienaProduktu ekologikoak, bioeraikuntza,
energia berriztagarriak eta
kontsumo arduratsua

Urria FICOPA

9 · 10 · 11 · 12

Ficobara
zuzenean!
euskotren

Euskal idazleak
Espainiako merkatuan

KUOTATIK HARAGO, **ATEAK ZABALTZEN** **ARI DIRA?**



Urte askoan bakanak izan dira Espainiako merkatuan tokia egitea lortu duten euskal idazleak. *Obabakoak*-ek 1989an Sari Nazionala lortu ondotik, Bernardo Atxagak bete zuen hamarkada oso batez euskarazko kuota; Unai Elorriagaren saria etorri zen gero (2002) –aparrari luzaz eutsi ez zion arren–, eta Kirmen Uriberena segidan (2009) –Espainian kolpetik kontsokratzeaz gain, munduko merkatu zabalerako tranpolin modura balio izan ziona–. Bien bitartean, euskal letretako kalitatezko ahots askok Espainian tokirik gabe jarraitzen zuten –Ramon Saizarbitoriaren kasua da deigarriena–. Zerbait aldatzen ari dela dirudi, ordea. Azken bospasei urteetan euskal idazle dezente –horietako asko emakumeak– hasi dira Espainiako merkatura jauzi egiten. Nola azaldu daiteke joera aldaketa hau? Auziaz aritu dira Katixa Agirre eta Iban Zaldua, eta Frantziako panorama zertan den azaldu du Itxaro Bordak.

KEPA MATXAIN

Eider Rodriguezek, Karmele Jaiok eta Iban Zalduak lehenbizikoz argitaratu dute Espainiako argitaletxe indartsu batekin berriki –Random House, Destino eta Galaxia Gutenberg, hurrenez hurren–. Horiei gehituz gero, esaterako, Katixa Agirrenen *Amek ez dute*-ren itzulpena (Tránsito) gaztelaniazko merkatuan izaten ari den arrakasta, edota, oso handiak izan gabe ere, beren zirkuitutxoak daukaten argitaletxe esanguratsu batzuetan ateratzear diren zenbait liburu –Amets Arzallusen eta Ibrahima Balderen *Miñan* (Blackie Books) edo Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* (Consonni), adibidez–, joera aldaketa bat sumatzeko aski zantzu badirela ematen du. Horretan da Agirre: “Azken urteetan antzeman da irekitze bat, eta gurean jada ezagunak ziren zenbait idazle ari dira Espainian haien publikoa eskuratzen”.

Ez da idazle zerrenda luzerik behar, halere, Espainiako merkaturak zabaltzen ari delako irudipena edukitzeko. Azken 30 urteetan, bakanak izan dira merkatu horretan tokia egitea lortu duten euskal idazleak. Zalduaren ustez, auziak zeri-

kusi zuzena du Espainiaren artikulazio politikoarekin. “Trantsizioko deszentralizazioak hizkuntza ‘periferikoen’ eremu instituzionala indartu zuen, eta, baita haien literaturena ere: literatura ‘periferikoak’ egile eta titulu berrien arrantzagune bihurtu ahal izan ziren, modu mugatuan bada ere”. 1989an *Obabakoak*-ek jasotako Sari Nazionalaren ondoren, Bernardo Atxagak bete zuen hamarkada oso batez Espainian euskal literaturari onartzen zitzaien kuota mugatua. Aho biko ezpata izan zen Atxagaren saria: euskal literaturari Letren Errepublikarako bidea irekitzen zion, baina talaia hartan berarentzat bakarrik zegoen tokia, beste egile asko itzalean utziz –belaunaldikideak ez ezik, Tropelekoak ere bai–. Eta beste paradoxa bat: 70eko hamarkadan literaturaren autonomiaren defentsan sutsuen aritutako autorea saritzean, ibilbide kontraesankor bat hasten da, Atxagak sariaz geroztik emandako pausoei erreparatuz gero. “Ez da detaile txikia Ediciones B-tik Alfaguarara egin zuen *transfer*-a, *Soinujolearen semea*-ren itzulpenarekin, oraindik edizio kontratuen oparotasun urteak indarrean zeudela”, dio Zalduak. Pixkanaka Espainiako –eta nazioarteko–

merkatuaren legeei men egitea leporatu izan diote bere kritikoek Atxagari, euskal esparruari muzin eginez. Neurri batean, bere ibilbide propioak deuseztatuko luke gaztaroan literaturaren autonomiaren alde egindako aldarria.

Zerikusirik ez Unai Elorriagaren kasuarekin. Polemikaz inguraturik jaso zuen 2002an Sari Nazionala –saria eman ondoren jakin zen nobelaren bi kapitulu bakarrik zeuzkala itzulita, eta epai-mahaiaren erabakia auzitan jarri zuen datu horrek–. Hasierako aparraldia gorabehera –bitxikeria modura, *Un travía en SP* hizpide izan omen zuten Zapaterok, Felipe Gonzalezek eta Alfonso Guerrak afalondo batean, eta hiruei izugarri gustatu omen zitzaien–, Elorriagaren arrakasta apaltzen hasi zen pixkanaka. Hala dio Zalduak: “Kalitate literarioaren ikuspegitik interesgarriagoa bihurtzen hasi den unean, *Iazko hezurrak* eta *Iturria*-rekin, utzi dio idazle profesionalaren karrera jarraitzeari –espainiar merkatuan zeukan presentzia oso oinarrituta zegoena–, eta itxi zaizkio, oraingoz, gaztelaniazko merkatuaren ateak, argitaletxe handi baten eskutik joanda, behintzat”.

Kirmen Uribe, azkenik, hala mintzo zen 2009an, Sari Nazionala jaso berri-tan: “Hizkuntza txiki batean idazten dut, Dakarreko, Madrilako edo Bostongo irakurleentzat”. Harena izan zen, ziur asko, Espainiako bitartekaritzarik gabe zuzenean Munduko Letren Errepublika anglosaxoira jauzi egiteko ageriko lehen saiakera. Zalduari iruditzen zaio, oraindik –New Yorkeko egonaldiarekin eta– horretan jarraitzen duen arren, apustu hori doitu beharra izan duela: “Betiko bideari lotu zaio azkenean, hots, espainiar merkatuaren bitartekaritza, PRISAk Atxagaren ordezkotako pieza bezala hautatu izanak islatuko lukeen bezala”.

MERKATUAK EXOTISMOA NAHI DU

Espainian arrakasta lortu duten euskal idazleen ezaugarri komunez galdetuta, kostunbrismoa aipatzen du Itxaro Bordak: “Itzulia den literatura herri baten irudiaren estereotipora egokitzen dena da. *Obabakoak* eta gisako nobelek Euskal Herriaren irudi nekazariena, xaloena, mitikoena ematen dute”. Agirrek kuota logikan ulertzen du hori: “Eus-

FRANTZIA, BESTE SAGARDOTEGI BAT

Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao* Gallimardek argitaratu zuen 2012an. Atxagaren obra nagusiak ere argitaletxe esanguratsuetan atera dira frantsesez. Hortik kanpora? Deus gutxi. Zalduak dienez, “Hegoaldeko euskal idazleek kupo hori daukate, Kontzertu Ekonomikoaren nolabaiteko baliokide izan daitekeen Kontzertu Literario moduko bat: Ipar Euskal Herrikoek, ezta hori ere”. Kupo horri esker, Hegoaldeko gutxi batzuk gaztelaniazko merkatura igarotzen dira eta, hortik, beste hizkuntzetara, tartean frantsesera. Iparraldekoek, gehienez ere, inguruko argitaletxe txikietan argitaratzen dute frantsesez, baina Frantzia guztiko merkatura jauzi egiteko aukera amiñirik gabe.

Eskualde hizkuntzak “biziki gaizki ikusiak” dira Frantzian, Bordaren ustez: “Gure hizkuntzak ez dira literatur hizkuntzat hartzen. 100% *basque* itzuli nuelarik, argitaletxe frantses batzuei bidali nien, eta erantzun zidaten interesgarria zela, baina ea zergatik ez nuen frantsesez zuzenean idazten. Hala eginez gero, argitaratuko zidatela. Nik, bistan denez, ezin dut beti zuzenki frantsesez idatzi –nahiz eta noizean behin idazten dudana–”.

Bada Borda kezkatzen duen beste auzi bat ere. Iruditzen zaio euskal sistematik sarri “traizio bezala” hartzen dela frantsesera itzulia izatea. “Gai bereziki interesgarria da, zeren hori Iparraldean bakarrik pasatzen da. Hegoaldean naturaltasunez hartzen dira itzulpenak”. Halere, itzulpenaren

labelarekin itsutu gabe, norbere lana kanpoko literatur sistemen arabera ez jukatzearen aldekoa da. “Arazoa litzateke euskaraz idazten dugunok, frantses sisteman sartu ezin dugula eta, geure buruak idazle txartzat hartzea. Euskal Herrian bada ideia hori. Badirudi zure testua ona delako itzultzen dutela. Baina itzulpena ez da sari bat bakarrik, da politika bat, da eginkizun kultural bat”.

Aurrera begira, hiru erronka bururatzen zaizkio: lehena, itzulpenaren eskema horiek burutik kentzea; bigarrena, Euskal Herrian itzulpena sustatzea; eta, hirugarrena, Frantziako eskualde-hizkuntzetako idazleen testuak frantsesez argitaratuko lituzkeen argitaletxe bat sortzea, “zabalkunde handikoa eta transbertsala”. Hortik etor daitezke aukera berriak.

kal literaturaren ordezkari bakarra aukatzen baduzu, zuk nahi duzun moldekoa izango da. Kuota zabaltzean mugak apurtzen dira, eta ahots gehiagorentzako tokia egiten da. Baina bakarra sartu badaiteke, logikoa da Euskal Herri klisea irudikatzen duena aukeratzea, eta ez beste bat”. Ikuspegiok bat egiten dute Atxagak aspaldian jaso zituen zenbait kritikarekin. Adibidez, 1997an Pako Aristik leporatu zion konformista izatea, eta “gazteleradunen komunitateari beste errealitate bat deskubritzen lagundu beharrean, komunitate horrek aurrez baduen ikuspegi epel bat bermatzea”. Joseba Gabilondok eta Ibai Atutxak ere antzerako zerbait esan izan dute Atxagaz eta Uribez: Euskal Herria irudikatu beharrean, haren irudi subordinatu bat eraikitzen dutela beren obretan. Atxagaren Obaba eta Uriberen Bilbao bi paisaia probintziano lirateke, oso salgarriak Espainiako merkaturan. Atxaga minduta azaldu zen euskal mundutik jasotako iruzkin batzuekin, eta adierazi zuen erdal mundura ez pasatzeko “benetako indarra” eduki behar dela, eta ideia batzuk buruan ere bai, baina bestela pasatuko litzatekeela, euskal mundutik baino “gozotasun gehiago” jasotzen delako. Urte luzez iraun zion sumin horrek, eta euskaraz idazten jarraitzeko arrazoi sendo baten bila zebilela esan izan zuen behin eta berriro.

Zalduak ere uste du espainiar literatur sisteman sartzea errazten duen ezaugarri bat dela exotismoa, baita komertzialtasuna ere: batzuetan bata, besteetan bestea, eta inoiz bata zein bestea –salbuespenak salbuespen–. Exotismoa, erruralismoarekin edo tipismo kutsuarekin identifikatuta, eta egun “terrorismoaren literatura-rekin” lotuta; komertzialtasunak berriz, “nobela literarioaren” ildoan asmatzearekin izan dezake zerikusia haren ustez, *midcult* mailako produktu salgarri bat eskaintzearekin. “Zer gertatzen da Saizarbitoriarekin? Ez duela ez baldintza bat ez bestea betetzen”. Sari Nazionaleko finalista izan zen 1996an *Los pasos incontables*-ekin –*Hamaika pausoren* gaztelaniazko itzulpena– eta 2013an *Martutene*-ekin, baina ezer eskuratu gabe. Kontuak izan dezake azalpenik: haren nobelek, exotismotik urrun, Euskal Herriaren irudi europar eta garaikide bat erakusten dute, partikularitate batera mugatu ezin daitekeen gizarte moderno bat. Eta, bestalde, Zalduaren ustez, erabaki editorial “ez bereziki egokiak” hartzeak ere ez zion lagundu: “Inpresioa daukat Saizarbitoria hobeto moldatuko zela Espainian Madrilen edo Bartzelonan kokatutako argitaletxe batekin –are txikia izanik–, zilegitasun osoz Ereinen alde egin zuen apustuarekin baino, mesede gutxi egin diona zentzu horretan, azal

terrible horietatik hasita”. Dena dela, argitaletxe handiekin probatu izan du inoiz –*Guárdame bajo tierra* (Alfaguara, 2002; *Gorde nazazu lurpean*-en itzulpena)–, eta ezta horrela ere.

Zalduari deigarri egiten zaio nola Harkaitz Canok ere espainiar merkaturan “lurrutze” zailtasunak izan dituen. Haren ustez, euskal literaturaren mugen erakusle da hori, “gurean duen prestigio ikaragarria han erreplikatzeko lortu ez duelako”. Hain justu, Canoren bi liburu berrienak –*Twist* eta *La voz del Faquir*, Seix Barralekin argitaratuak biak– euskal gatazka-rekin daude lotuta bete-betean. Hori ote Espainian ez funtzionatzeko motiboetako bat? Zalduaren ustez, “Euskal Gauzari” buruzko nobelek arazoak planteatu izan dituzte Espainian, diskurtso jakin batzuekin hornituta egonez gero. Baina hori guztiz irauli du *Patria* fenomenoak, “mota horretako literaturaren merkatu-eskaera handitu duelako, eta horrek aukera eman dielako euskal idazle batzuei idatzita zeukatena edo idazteko zeukatena espainiar merkaturan kokatzeko, merkatu-nitxo bat aurkitzeko”. Aipatzen duenez, *Patria*-z gero, gatazka bihurtu da “gure exotismo berria”, eta, era horretara, Jokin Muñozek “Gauzaren literatura”-ri opa zion patua bete da, “gure esportazio literarioarako gai nagusia bihurtzea, une batez gutxienez, eta Espainiari begira, noski”.

MINORIAK PLAZARA

Gatazkaren exotismoak ez du erabat azaltzen, ordea, euskal idazle sorta berri bati Espainiako merkatua ireki izana, bestelako gaiak jorratzen baitituzte horietako gehienek. Gauzak horrela, galdetu daiteke: 2011n ETAk armak uzteko hartutako erabakiak ekarri ote du paradigma aldaketa bat Espainiako literatura sisteman? Eta hala balitz, paradigma berri horrek zer lotura luke han go merkatuan euskal idazle sorta berri horri egin zaion tokiarekin? Zalduaren ustez, irekitze hori, neurri batean, literatura feminista baten eskutik etorri da, “exotikotzat hartu ezin daitezkeen ezaugarri batzuen eskutik, alegia”. Hor kokatzen ditu, aipatutako Rodriguez, Agirre eta Jaioz gain, Uxue Apaolaza eta Miren Agur Meabe ere. Auzi hone tan, aipagarria da Jasone Osorok Seix Barralekin atera zituela bi liburu –*Desnudos* (2002) eta *Greta* (2007)–, nahiz eta ziur asko zehatzagoa litzatekeen egungo ildo feministaren aurrekari bezala baino literatura “femenino” baten erakusgarri modura katalogatzea. Bordaren ustez, berriz, paradigma berriak zerikusia luke auzi zabalago batekin: ez feminismoaren soilik, ezpada minorien plazaratzearekin –emakumeek, beltzek, migratzaileek, homosexualek eta, oro har, identitate zapalduak testuinguru jakin batzuetan bizi lezaketen ikusgarritasunarekin–.

Galderari erantzuteko goizegi izan daitekeen arren, baliteke kanonaren aldaketa baten aurrean egotea. Hori bai, balizko kanon berriaren zakuan euskal idazle gehiagorentzako tokia legoke. Amaitu da lehen idazle batek betetzen zuen kuota hori. Orain ez da aski

pertsona bakarraren laginarekin, izen gehiago kabitzen gara”, dio Agirrek. Bere kasuan, gaztelaniarako itzulpenaren ondoren etorri zaizkio frantseserakoa eta ingeleserakoa. “Oraindik ere, gaztelania zubi hizkuntza da. Sistema normalizatu batean ez luke beharko, baina gure kasuan hala da”. Hala ere, aipatzen duenez, gaztelaniara itzultzea ez du bizi beste edozein hizkuntzetara itzultzea bezala: “Nire hizkuntza ere bada, eta, periferiatik bada ere, hor nago. Etengabeko *feedback*-a jasotzen dut, sare sozialen bitartez, hitzaldietarako deitzen didate... liburuaren bigarren bizitza oso bat hasten da itzulpenarekin”. Gaztelania hitzunez ere irakurria izango dela jakiteak idazterakoan eragiten ote dion galdetuta, ezetz dio: “Ni saiatzen naiz niretik idazten, euskaratik eta hemendik”. Argitaletxeen irizpideak, berriz, “misteriotsuak” iruditzen zaizkio Agirreri, eta zaila egiten zaio egungo irekitze horren arrazoiak zeintzuk diren aletzea. Bi bururatzen zaizkio: bata, egoera politikoa baretu dela; bestea, kalitate handiko idazle mordoa dagoela euskaraz eta, hortaz, logikoa dela inguruko literatur sistemek haiek arrantzatzea.

Zalduarentzat, kalitatearen irizpideak beti izaten du tokiren bat halakotan, baina bahe nagusia beste bat da: salgarritasuna. Baita feminismoaren egungo ildoari dagokionez ere: “Zer bilatzen du euskal arrantzagunearen kupoan Espainiako argitalpen sistemak?

Saldu dezaketen gaiak, boladan daudenak, eta horiekin lotutako egileak eta lanak”. Aipatzen duenez, kontraesanak sortzen dira orduan –edozein literatur merkatutan sortzen diren berberak–. “Zergatik Uribe saltzen du gehiago Saizarbitoriak baino, bigarrenaren nobelak hobeak badira? Lehenarenak ‘errazagoak’ direlako, ‘exotikoagoak’, eta bultzada komertzial egokiagoa dutenak. Zergatik ditu edizio gehiago Karmele Jaioaren nobelak Eider Rodriguezen ipuin liburuak baino, azkena hobeak bada? Kasu horretan bultzada komertziala antzekoa da, biak kaleratu direlako etxe handien eskutik, baina, berriz ere, Jaioarena literatura ‘irisgarriagoa’ da, eta

“

Zer bilatzen du euskal arrantzagunearen kupoan Espainiako argitalpen sistemak? Saldu dezaketen gaiak”

Iban Zaldúa

Rodriguezena, gainera, ipuin liburua, okerrago saldu ohi dena betiere”. Arrazoi askoren konbinazioak leudeke halako prozesuetan, hortaz. Azken gogoeta batekin amaitu du: “Batzuek ondorioztatzen dute, demagun, estatu propio bat edukiko bagenu, zuzenean Munduko Letren Errepublikara jauzi egingo luketen lan eta egile gehiago izango genituzkeela, jauzi hori errazagoa litzatekeela euskal idazleentzat. Ziurrenik kasu gehiago izango genituzke... baina askoz ere gehiago? Txikiak gara, gutxiegi gara demografikoki, are gutxiago linguistikoki. Eta konpentsatuko luke horrek euskal literaturak Espainiako merkatuan –gure ‘atzerriko’ merkaturik handienean– izango lukeen ondorengo presentziaren murrizketa ia segurua? Ez dakit ba”. ●



PANTX RECORDS

Jamaika txiki bat Bilboren bihotzean

Euri-lanbroak eta hotzak ezaugarritzen duten Bilbo grisean bada jamaikar doinuak eta giro tropikala zainetan daramatzanik. Hala da Andoni Fernández Azkarai, Beñat Gabiña Ñeko, Pablo Rodríguez García eta Maria Fernanda Hernández Valeraren kasuan. Pasio hitza hartu du ahotan laueta batek inguruotan jamaikar eszena bultzatzeak eragiten diona deskribatzeko, eta sentimendua orokortua dela apustu egin daiteke lepoa galtzeko beldurrik gabe. Ikusi besterik ez dago zelako maite-garra darien bataren zein bestearen begiradei eta hitzei karibetar irlako kulturari buruz hitz egitean, eta bereziki kultura hori oinarri hartuta sortu duten Pantx Records kolektiboa zer den azaltzean.

 AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA  HODEI TORRES

Bilbo Zaharreko Martzana kaian egin dugu hitzordua Pantx Recordseko kideekin. Mahaia hartu dugu erreka bazterrean, ez auzaz aukeratutako terraza batean ordea. Auzoko gentrifikazio prozesuaren ondorioz zabaldutako tabernen artean bada toki bat hiri neoliberean zirrikitua irekitzen duena, eta bertara sartu eta irteten pareta eginda, terraza muntatu dugu kanpoan. Bistan da etxean direla DDT Banaketak banatzaile eta argitaletxe alternatiboaren denda, eta xehetasun horrek asko dio Pantx kolektiboaren oinarriari buruz: kulturak bezainbat pisu dauka politikak beren jardunean. “Ez gara diskoe-txe musikala bakarrik, baizik eta izaera politikodun kolektiboa. Politikoak gara antolamenduan, politikoak gara diskoak ateratzeko prozesu guztian eta politikoak gara kalean”, egin dute ñabardura. Hala dela baieztatzen dute egintzek.

Zer nahi, hura sortu. “Zuk zeuk egi-zu” filosofia nabarmena da Pantxen bilakaeran eta funtzionamenduan. 2017an jaio zenetik, logika horri jarraiki egin du kolektiboak gaur arteko bidea. Musika jamaikarrarekiko zaletasuna duen jendea batu asmoz eta zigilu diskografiko ez komertzial bat sortzea amets eman zituzten lehen pausoak: “Pintxadetan faltan bota-

tzen genituen euskarazko abestiak, eta egun Euskal Herrian reggae kultura oso anitza eta indartsua denez, beharrezko ikusten genuen euskaraz egindako reggaea plazaratzea, gehien gustatzen zaigun formatuan: biniloan”. Alabaina, lehen helburuak gauzatu ahala anbizio handiago-ko xedeak joan zitzaizkien mamitzen, eta zigiluaren atzetik mahai gaineratu zuten musika estudioa egiteko aukera. Behin Gelboe’s estudioa beren kabuz eraikita, behar eta nahi berriak azaleratu zaizkie bata bestearen ondotik, eta hala joan dira gorpuzten, besteren artean, Pagasarri All Stars *backing band*-a edota Sua Industry azpi-zigilua ere. Guzti horrez gain, Pantx Official Selectors ere badute, disko jartzaileen taldea.

ARDATZ ANITZEKO PROIEKTUA

“Jamaikako eredua islatu dugu. Han egiten dena hona ekarri dugu, geure erara moldatuz. Prozesu guztia guk kudeatzen dugu gainera, eta garrantzitsua deritzogu horri. Jamaikan musika estudioak dituzte banda propio eta guzti, bada guk sortu dugu Gelboe’s eta estudio horren banda den Errementarians, baita zuzenekoetarako *backing band*-a den Pagasarri All Stars ere; han, estudioan sortzen diren diskoak festan aurkezten zituzten, eta

guk ere gauza bera egiten dugu; eta azpi-zigiluaren kontuarekin berdín, Jamaikan azpi-zigilu asko dituzte, eta guk ere badugu geurea, Sua Industry”, azaldu dute.

Sua Industryrekin atea ireki diete bes-telako doinuei ere, “ez baitira reggaeza-leak gure lagun guztiak”. Hainbat talde hurbiltzen zitzairen diskoa ateratzea gus-tatuko litzaiekela esanez, eta horiei esku bat botatzearen aldeko apustua egin zu-ten. “Dagoeneko baditugu Bilboko taldeen bospasei erreferentzia”, azpimarratu dute.

Zigilua, azpi-zigilua, disko jartzaileak, estudioa, *backing band*-a... Ardatz ho-riekin guztiekin gutxi ez, eta beste baten eraikuntza fasean daudela aurreratu dute: argitaletxea. Ildo horretan, orain artean *Bilbo Reggae Skins* fanzinea argitaratu izan dute, eta *Run Together* fanzinea Rodríguez-ek. Baina pauso bat gehiago eman eta liburua dute esku artean orain, Eguberrien bueltan argitaratu nahi dutena.

Linton Kwesi Johnson LKJ jamaikar poetaren antologia osatu dute euskaraz, Fernándezek egindako marrazki eta guz-ti. “Poeta hau oso garrantzitsua da gure-tzat, oso politikoa da, reggaearen mun-duan ohikoa ez den bezala; rastafarismoak duen kutsu erlijiosotik ere aldentzen da. *Dub poetry* deitzen dena egiten du, reggae baseen gainean errezitatzen ditu poesiak”,



Ezkerretik eskuinera, Andoni Fernández, Beñat Gabiña, Pablo Rodríguez eta Maria Fernanda Hernández, DDT-ren denda aurrean.

diote. Azaldu dute Pantera Beltzetako kide izandakoa dela, eta aldarri politiko, faxismoaren aurkako mezuz jositako poemak errexitatu izan dituela, Jamaikako kreolez. “*Jamaican english*-a zerabilen ingelese inperialismoaren aurka, eta hori horrela, guretzat bereziki interesgarria zen liburu hori euskarara itzultzea”, azpimarratu dute. Liburuarekin batera laberatu dute gurari berririk ere. Aitortu dutenez, “berarekin zerbait egin ahal izatea ametsa litzateke guretzat”.

SUSPERRALDIAN DEN ESZENA

Jamaikar kultura bultzatzeko xedea duen kolektiboa izanik, ezinbestean galdegin diegu eszenak gurean bizi duen egoerari buruz. Diotenez, bai beraiek zein belaunaldi nagusiagoek inoiz ikusi gabeko indarra hartu du jamaikar kulturaren bueltako Euskal Herriko eszenak.

“Sortu dira kolektibo zein irratsaio berriak, jendeak sekulako gogoak ditu gauzak egiteko. ‘Zuretzako Mezua’ Gasteizen, ‘Iruñerria Jamaica Clash’ Iruñean, ‘Basque Reggae Kultur Elkartea’ Donostian... hainbat kolektibo ari dira jaio-tzen”. Kimu berriak ez ezik, euskal reggaearen tradizio historikoan aurrekari izan dituztenak ere aipatu dituzte: “Guk, bere momentuan, Sustrai Records

izan genituen erreferentziatzat”.

Eszena indartsu egoteaz gain, osasuntsu dagoela ere azpimarratu nahi izan dute. Euskal Herrian barrena egiten diren Reggae Train jaialdiak adibidetzat hartuta, horietan bizi den giro sana nabarmendu dute. Kanpotik jasotako kritikek ere hala dela berretsi die. “Bailiteke hemengo kaskamotzen munduan gailendu izana harropuzkeria edota testosterone giroa”, egin dute irakurketa, ondokoa gehitzeko: “Gu eszena maiteko-rragoa egiten saiatzen ari gara”.

POLITIKA, ARDATZ TRANSBERTSALA

Jamaikar kulturarekin bakarrik ez, hainbat kausarekin dago konprometiturik Pantx. Posizionamendu politiko argia dauka kolektiboak, eta hori garbi islatzen da beren egitura horizontalean, funtzionatzeko modu asanbleario eta autogestionatuan, eta zirkulu komertzialetik at jarduteko motibazioan.

Auzoarekiko duten konpromisoak berebiziko garrantzia du zentzu horretan. Bilbo Zaharrak badu gainontzeko auzoetatik ezberdintzen duen ezaugarriarik: atzerritik etorritako pertsona asko bizi da bertan. Aberastasun faktore behar lu-keena, baina, diskriminazio motibo izan

ohi da eta arrazakeria maiz azaleratzen da kaleetan: “Konfinamenduan, adibidez, ikusi dugu poliziaren jarrera nazkagarrria, nola grinatu diren pertsona arrazializatu-ekin; guk kolektibo horri babesa erakusten diogu”. Hala da, arrazakeria- ren aurkako jarrerak badu pisua egiten dituzten ekimenen artean, aski sonatua baita antolatzen duten Mundialito Mixto Antiarrazista futbol txapelketa.

Bizipen batek bultzatu zituen ekimena martxan jartzera: “Behin bi lagun gin- doazen Santutxutik Iralara, eta kontaine- rretan baloi puskatu bat aurkitu genuen. Hasi ginen bidean aurrera baloiari ostiko- ka, eta San Frantsisko kaletik igarotzean pertsona mordoa hasi zen baloiarekin jolasean. Etnia guztietako jendea nahastu zen elkarrekin”. Argi utzi dute: mundia- litoaren helburua futbola lehen lerroan jartzetik oso urruti dago. “Kirol hori da- rabilgu narru zati batek baduelako ikara- garritzko gaitasuna jendea batzeko”, diote. Eta bai asmatu ere formularekin: azken edizioan 30 talde baino gehiagok parte hartu zuen, eta ateratako dirua harre- ra taldeetara edota Ongi Etorri Errefu- xiatuak plataformara bideratu izan dute. Hori guztia, nola ez, ostikoei jamaikar erritmodun soinu banda jarri bitartean. Ezin zitekeen bestela izan. ●



LIBURUA

Bizitzaz betetako uda

AMAIA ALVAREZ URIA

Maddi Ane Txoperena hendaia gaztearen, kazetariaren, eta bertsolariaren lehen liburua da hau. Gazteluma X. saria irabazi zuen eta horri esker heldu zaigu eskuartera. Dirudenez, hurrengo liburua idazten ari da, duela gutxi XXIII. Igartza saria irabazi berri du eta laster izango dugu bere bigarren lana irakurtzeko aukera.

Pertsonaien ganean eraikitako eleberrria da bere *opera prima*. Protagonista Parisen Zientzia Politikoen lizentzia bukatzearen duen Marie da. Uda garaian herrira bueltatuko da eta ikasketei amaiera emango dien lana burutzeko bere amatei Josefinaren laguntza izango du. Izan ere, haren gaztetako bizipenak bilduko ditu lana egiteko.

Euskal literaturan emakume zaharren ahotza entzuten hasi garen honetan –adibidez, Arantxa Urretabizkairen *Hiru Mariak* edo Mari Luz Estebanen *Andre zahararen manifestua*–, polita da idazle gazteak ere zaharregana hurbiltzen ikustea, haien ahotik hurbileko historia ezagutu nahian.

Pandemia garaian konturatu gara zein gutxi balio duen gure –mendebal-

deko– kulturaren bizitzak, eta bereziki, zaharrenak. Hori dela eta *old lives matter* mugimendua jarri dute abian. Horren harira, badu interesa liburu honek, emakume zahar baten ahotsari ematen zaion garrantziagatik.

Ikuspegi feministatik ere, askotan ekin ahazten da genealogiak egitea. Belaunaldien arteko harremanak bilatuz, elikatuz eta ezagutzak eta esperientziak partekatuz asko aberasten baita jarduna. Liburu honetan, biloba eta amonaren arteko harremana erdigunean jartzen du egileak sare hori eraikiz.

Euskal Herria Ipar eta Hego direla gogoratzeko ere ondo dator liburu hau.



GARAZI CONDE / ERRANEUS

ENE BAITAN BIZI DA MADDI ANE TXOPERENA

ELKAR, 2020

Izan ere, euskal literaturako eta kulturako hegozentrismoa gaiztatu lagunduko digu mugan kokatzen den narrazio honek. Euskal identitatea osatuz eta espazio eta denbora mugak malgutuz, ekialdeko euskarara hurbildu nahi duen mendebaldeko irakurlearentzat ere gomendagarria da.

Bera, Donibane Lohizune eta Paris dira koordinatuak Marie eta Josefinarentzat. Izan XX. mendean edo XXI. mendean. Bidaia batekin hasi eta bukatzen da eleberrria. Gazte baten uda batean zenbat gauza kabitzen diren ikusiko dugu bertan, baita zahar baten oroitzapenen kontaketa zenbat bizitza dagoen ere. ●

HERNANI
oroimena

www.hernanioroimena.eus

Giza eskubideen urraketak
Hernanin eta
hernaniarren aurka

Hernaniko
Udala



MUSIKA

Schubert handia

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Aurreko artikuluan aurreratu nuen, Euskadiko Orkestrak hainbat erabaki hartu ditu bere publikoa segurtasunez, aniztasunez eta kalitatez berriro harrapatzeko.

Orkestraren denboraldi honen hasieraren ezaugarri nagusia saio bikoitzaren planteamendua izan zen, abonatuaren erdiak kontzertuetako batera joatea ahalbidetzen duena. Schuberti saioa eskaintzea ere datu interesgarria izan zen. Euskadiko Orkestraren abonatu-kontzertuetan ez da ohikoa maratoi monografiakoak eskaintzea eta, horregatik, hasiera-ko programa honek pizgarria zuen.

Musika kontuetan sartu aurretik, kontzertuko giroa aipatu behar da. Zalantzarik gabe, denok nahi genuen kontzertu-ziklotara itzultzea, musika zuzenean sentitzea, interpretazio on batekin gozatzea. Baina aitortu behar dut saioaren hoztasuna –musikarekin zerikusirik ez zuena– samingarrria zela, nahiz eta agian adjektibo hau gehiegizkoa izan. Kontzertu batek badu zerbaite komunitatik, komunikaziotik, eta hau guztia gutxitzen da ia hutsik dagoen antzoki batean, edo orain existitzen ez diren atsedendaldietan komentarioak egiteko ezintasunaren ondorioz... Tira, iritsiko da eguna, hau guztia aldatuko da.

Benetan garrantzitsua dena itzu-



JON USUAL / EUSKADIKO ORKESTRA

liz, musikara hain zuzen ere, Euskadiko Orkestraren Schuberten sinfonien interpretazioa nabarmena izan zen, nahiz eta zertxobait irregularra.

9. sinfonia, orokorrean, zirrargarria goa izan zen, erritmo zehatzagoz eta indar handiagoz eramana. Aitzitik, 3. sinfonia nahiko laua geratu zen, lan honen berezitasunak kontuan hartuta. *Allegretto*-aren xarma oharkabean igaro zen, eta azken *Menuetto*-aren erritmo markatuak, azentu zakarrez beteak, ez zuen behar besteko bizitasunik izan.

Hala ere, orkestrak giharra erakutsi zuen 9. sinfonian, "Handia", do maiorrean D944 obran. Sinfonia hau, XIX. mende amaierako distiratsuenetako bat da. Bitxia bada ere, Schumann konpo-

SCHUBERT-EN 3. ETA 9. SINFONIAK EUSKADIKO ORKESTRA ZUZENDARIA: ROBERT TREVIÑO

GASTEIZKO PRINCIPAL ANTZOKIA
IRAILAK 25

sitoreak aurkitu zuen obra hau paper pila desordenatu baten artean, Schubert bera hil eta hamar urtera. Ñabarduren aberastasun izugarria du, eta Euskadiko Orkestrak eta Robert Treviñoren batutak balioan jartzen jakin zuten.

Saio ona, laburbilduz. Gustura atera zen publikoa. ●

MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

ogiaren egia

Galparsoro OKINDEGIA

Ogi biologikoak
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak
Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

LUAarkitektoak

ARKITEKTURA eta HIRIGINTZA
www.luark.com
948132997 - Arga ibara kalea 25 30 trinfa



Bikote harreman atipiko tipikoa

ALEJANDRA GOIKOETXEA TXALO PRODUKZIOAK

Ez da zuzenekoetarako unerik onena, udaran gertuko eskaintza kulturala topatzea ez baita erraza izan. Hortaz, lagunek gonbidapena egin eta Ikusgarri Antzokian *Losers* ikusteko hautua egin nuen, aspaldian antzezlari baten aurrean bizitako zirrararen bila. Sarrerak agortuta eta antzokia lepo emanaldia hasi denean.

Telefono konpainia bateko denda batean elkar ezagutzen dute Sara (Aitziber Garmendia) eta Imanol (Jon Plazaola) dendariek. Elkarriketa deseroso hasi arren, bukaerarako bien artean zer edo zer badagoela sumatzen dute protagonistek. Ustez barneratuta duten galtzaile izate horretatik kanpo kokatuko dituen biak. Izan ere, 40 urteak beteta eta oraindik lan egonkorrik gabe, iraganeko

bikote harremanean trabatuta eta ume barik daude Sara eta Imanol *loser* edo galtzaileak.

Esperotako komedia erromantikoa izan da taula gainean aurkitutakoa. Eguneroko topikoen salaketa egiteko ahaleginean labur gelditu dena. Sare sozialak eta bertako itxurakeria hartu ditu hizpide ikuskizunaren zatirik handienak. Nire ustez, gaur egungo harremanen eraikuntzaren kritika epela, sakontasun larregirik bakoa.

Puntako bi aktoreen lanak umore errazenarekin ere publikoa algaraka ipini du. Nik neuk ere musukoaren azpian pare bat aldiz irribarre egin dut, aitortu beharra daukat. Umorea izan da antzezlaren haria jarraitzeko tresna nagusia eta hori ondo baino hobeto kudeatzen dute Garmendiak eta Plazaolak.

Ni gustura atera naiz sarrerak agortuta kartela eseki duen emanalдитik, kultur egarria duen herri baten irudiarekin, baina gorputzak oraindik ere gehiago eskatzen dit. ●

LOSERS

IRAILAK 18

Lekeitioko Ikusgarri zinema aretoan.

Zuzendaria: Begoña Bilbao.

Aktoreak: Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola.

Jantziak: Kristina Martinez.

Eszenografia: Asier Sancho.

Argi diseinua: Julen Zaballa.

Teknikariak: Alfredo Medina eta Javier Guerra.

Àlex Francès

ETXEBIZITZA
ESKUBIDEAREN ALDE



KALERATZEEI, SO!

“2010az geroztik, aurreko higiezinaren burbuilak eztanda egin eta alokairuek behera egin zutenetik, Bartzelonako Sant Antoni auzoa dut bizitoki. Azken hamarkadan auzoan gentrifikazio prozesu gogorra pairatu dugu eta bizilagun anitz kanporatuak izan dira alokairuen gorakadaren ondorioz. 2017an Sindicat de Llogateres plataformaren aurkezpena joan nintzen; Bartzelonako kultur etxe batean zen, jendez lepo bete zen eta kanpoan gelditu ziren anitz. Orduan jabetu nintzen etxebizitzaren arazo larriari fokua jarri ari zitzaiola. Erabaki nuen borroka horretan murgiltzea, eta gaur arte”.

“Lege hau ez da gure borrokaren amaiera”

Ikasle mugimenduan eta etxebizitza eskubideen aldeko borrokan aritua da azken urteetan Àlex Francès (Alacant, Herrialde Katalanak, 1984). 2017az geroztik Kataluniako Sindicat de Llogateres maizterren sindikatuko kidea da, eta egun plataformako bozeramaileetako bat da. Kataluniako Parlamentuak alokairuen prezioak erregulatatzeko lege proposamena onartzea lortu dute aurki.

 SAIOA BALEZTENA  JORDI BORRÀS

Zer gertatu da alokairuekin Bartzelonan?

Milaka familia etxerik gabe gelditzen ari dira eta ez dira hilabete bukaerara iristen. Azken bost urteotan alokairuen prezioak %45eko gorakada izan du, soldatak kasik bere horretan mantendu diren bitartean. Are gehiago, osasun krisiaren ondorioz, gogor erori dira. Familia anitzek diru sarreren %50a alokairura bideratzen du, Nazio Batuen Erakundearen arabera gehienez ere %30a izan beharko lukeen arren. Katalunian, 2019an, 12.500 etxegabetze gauzatu dira, eta horietako %67,5 alokairuak ez ordaintzeagatik agindu dute.

Eskubide urraketa hori salatzeko sortu zen Sindicat de Llogateres?

Bai, alokairuen gorakadak markatutako urte mordoaren ondotik, jende dezente arduratzen hasia zen, alokairua ezin ordaintzeagatik euren etxetik botatzen zutelako. 2016aren hondarrean talde sustatzaile bat lanean hasi zen eta 2017ko maiatzean aurkezpen pu-

blikoa egin zuen. Pixkanaka-pixkanaka handitzen joan ginen, asanblada irekien bitartez jendea batu zelako gure sindikatura.

Zein da zuen lan dinamika?

Horizontalki lan egiten dugu. Gure espaziorik garrantzitsuena maizterren asanblada da: etxebizitzarekin arazoak dituzten hiritarrek biltzen baikara, modu kolektiboan irtenbideak bilatzeko. Horretaz aparte, lan komisio gehiago dugu, hala nola, koordinazioa, osoko bilera eta afiliatuen asanblada. Garrantzitsuenak da espazio erabat irekia garelako, gure ateak irekita daude interesa duen edonorentzat. Bilatzen dugu sindikatua auto-antolaketa lanabesa izatea, eta bertan parte hartzen duen jendearen artean, euren arazoetatik harago jo eta elkartasun zein anaitasun loturak sustatzea.

Irailaren 9an Kataluniako Parlamentuak onartu zuen hainbertze aldarrikatu duen lege proposamena: alokairuen prezioak erregularizatzeak legea.



"LEGE HAU MINIMOEN ERREGULAZIOA DA ETA BORROKAK JARRAITU BEHAR DU ETXEBIZITZA GUZTION ESKUBIDEA IZAN DADIN".

Mugarri historikoa izan da, duela lau urte pentsaezina zen prezioen erregularizazioaz hitz egitea. Borroka eta lan urte anitz izan dira lagun anitzentzat, eta mezezi izan du. Hori bai, lege hau minimoen erregulazioa da eta borrokak jarraitu behar du etxebizitza guztion eskubidea izan dadin.

Zein izan da legea onartzeko gakoa?

Momentu politikoaren irakurketa egokia egin dela uste dut. Urte anitz daramagu borrokan, kalera ateratzen, jabeekin negoziatzen eta alokairuen gorakada neurrigabeak salatzen. Horrek indarra eman digu funtsezkoak ziren aldaketa legegileak sustatzeko.

Orain arte ez al zegoen maizterren eskubideak babesteko erregulaziorik?

Katalunian etxebizitza eskubideen aldeko mugimenduek historikoki izan duten indarrari esker, tartean Hipotekek Kalte-tuen Plataformak, Espainiako Estatuko legerik bermatzaileenak ditugu etxebizitza eskubideari dagokionez. Horien bitartez, adibidez, hamabost etxebizitza alokatuta dituzten enpresek funtsezkoa dute zaurgarritasun egoeran dauden familiei alokairu soziala bermatzea, eraikin be-

rean. Baina hagitz garrantzitsua den lege horrek kanpoan uzten zituen, ahultasun egoeran bizi gabe ere, hilero-hilero euren etxebizitza eskubidea arriskuan ikusten zuten milaka familia.

Sare sozialetan sekulako eztanda izan du zuen kanpainak.

Egia esan hagitz pozik gaude azken asteetan erregulazioaren alde milaka eta milaka pertsonen aldetik jaso dugun babesarekin. Sare sozialetako zaparradak agerian utzi du gizarteko sektore anitzi eragiten diela alokairuen burbuilak eta, testuinguru horretan, politikariek erabaki behar izan dute gehiengo sozialen edo errentadunen alde zeuden.

Legea onartuta, zeintzuk dira aurrerantzean errentadunek gurutzatu ezingo dituzten marra gorriak?

Legea Kataluniako Generalitateko Egunkari Ofizialean (DOGC) publikatu eta indarrean sartzen denetik jabeen gehien-goak ezingo ditu maizterren alokairuak igo. Erregulazio honen bitartez muga bikoitza bermatzen dugu: batetik, sinatzen den kontratu berri orok aurrekoaren prezio berdina mantendu beharko du,

igoera neurrigabeak saihestuz; bertzetik, Generalitateko alokairuaren prezio adierazleekin alderatuta aurreko kontratuaren prezioa altuegia balitz, kontratu berriaren prezioa jaitsi beharko da.

Bartzelonan aplikatuko da bakarrik?

Azken urteetako alokairuen gorakada ez da Bartzelonan bakarrik gertatu. Legea aplikatu ahal izango da zehaztu diren Kataluniako 60 udalerritan. Ez hori bakarrik, legea indarrean sartzen denetik, legeak ezarritako baldintzak betetzen dituen udalerririk orok eskatu dezake legea aplikatzeko eskumena.

Zein erronka duzue aurrerakoan?

Lege hau onartzea aurrerapauso garrantzitsua den arren, adi egon beharko dugu adostutakoa bete dadin, eta legea betetzen ez duten jabeak salatu daitezten. Horregatik, maizterrei sindikatura batzeko deialdia egiten jarraitzen dugu, modurik hoberena izango baita geure eskubideak babesteko. Era berean, lanean jarraitzen dugu etxe kaleratzeak amaitu daitezten, etxebizitza eskubidea guztion eskura egon dadin eta etxebizitza publikoaren parkea handitu dadin. Lege hau ez da gure borrokaren amaiera. ●



Aitzina! desegin ostean, bideo bat igo dute Youtubera auzapez abertzale izateko urratsak azalduz



AITZINAKO KIDE GUZTIAK AZKEN ASANBLADARA BIDEAN.

Zazpi urteko ibilbidearen ondoren Aitzina! gazte erakundeak desegitea erabaki du, baina denbora honetan ikasitakoa herritarren esku utzi nahi izan dute aurretik. "Hegoaldeko abertzaleek abiatutako bidetik, herriko etxeetan eta elkargoan burutuko dugu borroka orain, kalean ez baita nehor ibiltzen", azaldu du Aitzinak Instagram bidez. Borroka molde berri horri lotzeko, tu-

torial bat jarri du gazte erakundeak Youtuben, auzapez abertzale izatera iristeko hamar aholku emanez. Lehenbizikoa, "Nola izan gazte inork nabaritu gabe", Ziburuko auzapezaren *masterclass* bat da eta ondorengo bederatzi urratsetan berriz, Jean-René Etxegarai eskuineko frantximent bat dela ez esateko trikimailu diskurtsiboak azaldu dituzte. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Hau da
edo ez edo a



Happy ikurriña



SALDIAS, BIDEA ERAKUSTEN, EMAKUME BANA ALBOAN DUELA, OHI LEGEZ.

Izarkom operadoreak 6G eskainiko du, 5Gren aurkako atentatuak saihesteko

COVID-19 pandemia 5G teknologiak eragin duelakoan, Euskaltelen 127 antena-dorre eta espaziora bidalitako 800.000 satellite leherrarazi ditu jada ekintzaile talde batek. Erakundeko lider intelektualek –Miguel Bosé, Enrique Bunbury eta Xabier Saldias– adierazi dutenez, euren esku dagoen guztia egingo dute "uhin elektromagnetikoen zabalpena gure rantxera ederren uhin hedakorren bidez geratu behar badugu ere". Hori

horrela, Izarkomek, gaur egungo eredu ekonomiko kapitalista zisnormatiboa gainditzea helburu duen modu demokratikoan egikaritutako gizarte ekimenerako kooperatiba parte-hartzaileak, jakinarazi du jada prest duela 6G teknologia, eta ondare komuna eta jendartearen ongizatea helburu dituenek, doan eskainiko duela nahi duenarentzat, salbu eta Beñat Irasuegirentzat, azkenaldian "majo dirutu baita". ●



**Hiru kolore
aukeran:**
grisa, arrosa
eta berdea.

**Modelo estua eta
zabala aukeran**
kolore guztietan.

%100 kotoi organikoa.

Lurra herriari deika

Jaten dugun elikagai bakoitzarekin,
nekazaritza eta gizarte eredu bat
bultzatzen ari gara. Beraz, jatea
bihur dezagun egunean hiru bider
egiten dugun plazerezko iraultza!

Erostea: argia.eus/azoka 943 37 15 45

Kamiseta berriak!

Agroekologia mugimendua
eta  **ARGIA** elkarlanean

19,5€

Kamiseta erosita, 2€-ko
ekarpena egingo diozu
agroekologia mugimenduari
eta beste hainbestekoa ARGIAri.

Jakoba Errekondoren liburu berria

Etxeko landareak



Landareak etxeko poza dira. Ongi zaintzen dituenak bizitzaren edertasuna jasotzen du opari. Liburu honek hobeto zaintzeko gakoak emango dizkigu: zein landare aukeratu txoko bakoitzerako, gaixotasunei nola aurre egin, landare bakoitza nola ureztatu, ongarri naturalak nola egin, haziz doan ahala nola birlandatu... maite dugun landare hori nola ugaltu ere ikasiko dugu. Zaintzen asmatzeko beharrezkoena, lore bakoitza ezagutzea da. Liburu honetan deskubrituko dituzu bakoitzaren jatorria, beharrak eta gustuak. Bizitzaren ederra loratu dadila!

EROSTEKO

argia.eus/azoka
9433 7 15 45

 **ARGIA**
www.argia.eus

BIZI BARATZEA
www.bizibaratzea.eus



25€

Orri kop.: **248**